

URUMEA BAILARAKO EGUNKARIA



## 'Loratuz lotu', transexual helduen elkartea

HERNANI  
LORATUZ LOTU

2-3



## Bere emaitzekin «oso harrituta», Hodei Lujanbio

GOIZUETA  
MENDI LASTERKETAK

14



## Etiopian bizi eta argazkitan bildutakoa erakusgai, Enaitz Semperenak

HERNANI  
ARGAZKILARITZA

4-5



## Kaleak mortu

COVID-19 edo Koronabirusaren hedapena murriztu eta geldiarazteko makina bat neurri hartu dira Urumea bailaran: azkenak, txotx denboraldia etetea, parkeak ixtea edota tabernak ixtea.

7



## 2020ko ekintza kulturaleri hasiera arrakastatsua, Auzo Elkarteak

EREÑOTZU  
OLAK AUZO ELKARTEA

11



## Etenaren aurretik debuta gaur, Aritz Zubiri goizuetarrak

URUMEA  
ERREMONTEA

15

UDARA 2020			
LANZAROTE Ekainean Bilbotik hegaldia 7 gau 3 <sup>a</sup> apartamentuan pentsio erdian	475 €	KROAZIA Uztaila eta abuztuan Bilbotik hegaldia zuzena 8 eguneko zirkuitua 4 <sup>a</sup> hoteletan, pentsio erdia + bixitak barne	1275 €
LA HABANA-VARADERO Ekainean Madritik hegaldia 7 gau 4 <sup>a</sup> hoteletan, gosaria barne	870 €	PRAGA-BUDAPEST Uztaila eta abuztuan Bilbotik hegaldia zuzena 8 eguneko zirkuitua, 4 <sup>a</sup> hoteletan gosaria + bixitak barne	990 €
BENIDORM Ekainean 7 gau 4 <sup>a</sup> hotelean pentsio osoan, 2 heldu + ume bat	755 €	CORFU Abuztuan Bilbotik hegaldia zuzena 7 gau 4 <sup>a</sup> hotelean pentsio osoa + edariak barne	580 €
MADEIRA Uztailan Bilbotik hegaldia zuzena 7 gau 4 <sup>a</sup> hotelean gosaria barne	569 €	IRLANDA Uztaila eta abuztuan Bilbotik hegaldia zuzena 8 eguneko zirkuitua, pentsio erdia + bixitak barne	1450 €
DJERBA (Tunez) Uztailan Gasteizetik hegaldia zuzena 7 gau 4 <sup>a</sup> hotelean DENA BARNE	751 €	MENORCA Irailan Bilbotik hegaldia 7 gau 3 <sup>a</sup> hotelean gosaria barne	395 €
COZUMEL (Mexico) Uztailan Madritik hegaldia 7 gau, 4 <sup>a</sup> hotelean DENA BARNE	1250 €	CABO DE GATA Irailan 7 gau 4 <sup>a</sup> hotelean pentsio erdian 2 heldu + 2 ume	885 €

ANTOLATU ZUEN OPORTAK GUREKIN, SEGURITASUN ETA BERME OSOAREKIN

[www.bidaibila.eus](http://www.bidaibila.eus)  
Iaidea: pretio berria

**HERNANI**  
BIDAIAK  
Urbeta 5  
943 33 00 49  
634 61 52 74

JARRAITU:  
g+ i f t p



# «Ez dugu gizon edo emakume itxura eman behar, dagoeneko bai baikara»

Transexual helduentzako Euskal Herriko aurreneko elkarte sortu dute Andoaingo Leitzaran Institutuko ikasleek; Loratuz lotu. Tartean da Brayan Altimasberes hernaniarra.

**HERNANI LORATUZ LOTU**

Ikasturte hasieran ekin zioten lanari. Andoaingo Leitzaran Institutuko Gizarteratzea goi-mailako zikloko ikasleak dira Brayan Altimasberes Alaminos, Gilen Larrañaga Ruiz de Mendoza, Izaro Ariztimuño Montero, Mash Elizalde Etxeberria, Cristina Clemente Garcia eta Ainhoa San Emeterio Mitxeleña, eta enpresarekin lotutako ikasgaiarako, *Loratuz lotu* elkar-tea sortzeko lanean hasi ziren; transexual helduentzako Euskal Herriko aurreneko elkarte sortzeko proposamena egin zuten.

Txostenetan eta paperean bildutako ideia hori, errealitatera eraman nahi dute orain. Brayan Altimasberes hernaniarra da, eta bertan lanketa eginda dagoenez, Udalarekin harremanetan jarri dira, proiektua errealitate bihurtzeko babes bila. Plaza Feministan egin diete tokia, eta oraindik ordutegiak zehaztu ez badituzte ere, zabalik daude edonoren zailtasun argitu eta babesa emateko. Sare sozialen bidez erraza da haiekin harremanetan jartzea. Baita telefonoz ere: Mash: 638 738 924 / Brayan: 688 877 148.

**Loratuz lotu elkartearen sortzaileak zarete. Nola elkartu zarete?**

**Brayan Altimasberes:** Goi eta erdi maila guztietan dago enpresako ikasgaia. Gu euskera taldean geunden. Mash, berriz, gaztelaniakoan. Pentsatu genuen elkar-ete bat sortzea. Nik aspaldi neukan ideia hori buruan, eta hor aukera izugarria ikusi nuen. Haien klasean ere antzeko ideia izan omen zuten, eta irakasleak pentsatu zuen ona litzatekeela elkartu eta talde bakar bat sortzea.

Hitz egiten hasi, eta ikusi genuen denok genuela asmoa proiektua gero errealitatera eramateko, eta horrela, serioago hartu genuen kontua. Lan serioagoa egiten hasi ginen, ez bakarrik ikasgaiari begira, baizik eta azken helburu horretarako.

**Nondik dator izena?**

**B.A.:** Erraza ez zen izan! Brainstorming, ideia jasa bat egin genuen, eta irakaslearen laguntza ere izan genuen. Hasierako ideia izan zen *Loratzen* deitzea. Baina, begira hasi, eta ikusi genuen Naizen elkar-eteak sortua daukela proiektu bat antzeko izena daukana, eta aldatu beharra genuela pentsatu genuen. Horrela, pentsatu eta pentsatu, *Loratuz lotu* ateratu zen. Azkenean, adierazten du aldaketa edo trantsizio bat egin ondoren, birsortu egiten zarela, berriz jaioko bazina bezala. Sentsazio hori biltzen du, eta, aldi berean, besteekin konektatzeko ideia. Elkar-ete batean zaudenean hori bilatzen duzu, ikustea ez zaudela bakarrik. Azkenean, hori gertatzen baita, bakarrik zaudela. Trantsizio hori guztia bakarrik egiten duzu, eta horregatik elkartearen ideia hori ere, besteekin lotzeko.

**Zein helbururekin sortu duzue elkar-etea?**

**B.A.:** Bai Mash eta bai ni transpersonak gara, eta trantsizioa nahiko bakarrik egin dugu. Gaur egun ez dago erreferentziarik, ez dago elkar-eterik, bertara jo eta laguntza eskatzeko, beste pertsona batzuk ezagutzeko. Horregatik pentsatu genuen elkar-ete bat sortzea, batez ere, antzeko egoerak pasa dituzten beste pertsona batzuk ezagutzeko, eta era berean, besteie ere laguntzeko.



Ekzer-eskubi, goitik behera: Brayan, Gilen, Mash eta Izaro bildu dira Kronikarekin, Loratuz lotu elkartearen berri emateko.

Erreferentzia izateko, jakiteko ez daudela bakarrik. Ikusarazteko beste batzuk ere badaudela. Zerbait normala dela, eta ez, beraiei bakarrik gertatzen zaien zerbait. **Mash Elizalde:** Eta babes psikologikoa emateko. Azkenean, bakardade horretan sentitzen zara psikologikoki gaizki, eta trantsizio hori ezagutu duten beste pertsona batzuen berri jakiteak ematen dizu indarra, eta askotan behar izaten da. Segurutasuna. Babesa.

**B.A.:** Laguntza legala eskaintzea ere bada asmoa. Agian, ez legeak sortzeari begira, beste elkar-eteak egiten duten moduan, baizik eta gehiago, arazo batzuen aurrean laguntza emateko: NANarekin arazoa baduzu, nora jo jakiteko laguntza, adibidez.

**Helduen aurreneko elkarteak zarete, baina beste batzuk badirela diozue. Zein hutsune topatu dituzue?**

**M.E.:** Gehienak dira LGTB guztia barnebiltzen dutenak, eta ez

**«'Loratuz lotu' izenak adierazten du aldaketa edo trantsizio bat egin ondoren, birsortu egiten zarela, berriz jaioko bazina bezala, eta aldi berean, besteekin konektatzeko ideia»**

dago bat trans personentzako bakarrik. Naizen kenduta.

**B.A.:** Naizen da haur nerabe eta eta familien elkar-etea. Hau guztia egiteko merkatu ikerketa egin genuen, eta parez pare egin genuen topo Errespetuz elkar-etearekin. Bost urtez Bilbon bizita ere, ez dut sekula aditu haietaz. Orduan, gure ustez hutsune handia daukate. Legeak egiteari begira egiten dute lan gehien,

baina esan ziguten ez dutela jendea biltzen, eta hor hutsune handia ikusi genuen. Inork ez du ezagutzen, ez da erreferente inorentzat; mundu honetan oso sartua egon behar duzu elkar-etea ezagutzeko. Beraz, prozesuarekin orain hasten direnek, oso galduta daudenek, ez dakite nora jo. Lehendabiziko erreferentzia puntua sortu nahi dugu horregatik.

**Zein fasetan zaudete orain?**

**B.A.:** Eskolako lana bukatu dugu, eta orain, txostena bukatzen ari gara. Hernaniko Udalarekin hitzordua ere egin dugu proiektua aurkezteko, egoitza lortzeko; Plaza Feministan egin digu tokia. Eta gero, herrian publikitateak egitea. Nik taberna batean egiten dut lan, eta ari naiz azalpenak ematen. Txapak ere saltzen ditugu, jendea ezagutzen ari gara, eta guztia sare sozialetan zabaltzen, noski. Egoitzarik gabe ere, elkar-etea jendearen aurrean aurkezteko

## Kronika

Larramendi 11, Hernani  
☎ 943 33 08 99  
688 660 714

**Lege gordailua:**  
ISSN: 2659/2018  
ISSN: 2659-5036

**Eposta:**  
kronika@kronika.eus,  
astigarraga@kronika.eus,  
urumea@kronika.eus eta  
publi@kronika.eus  
[www.kronika.eus](http://www.kronika.eus)

**Lan-taldea:**  
A. Arbelaitz, O. Egaña,  
I. Goñi, L. Goñi, B. Los  
urumea, A. Moreno, J. Osa,  
M. Ramirez de Alda eta  
J. Zubitur.

**Argitaratzailea:**



Larramendi 11, Hernani  
☎ 943 33 27 99  
**Eposta:** dobera@dobera.eus  
[www.dobera.eus](http://www.dobera.eus)

KRONIKAK ez du bere gain hartzen egunkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

**Laguntzaileak:**



Hernaniko Udala



Astigarragako Udala



Ereñotzuko  
Auzo Udala



GOIZUETAKO UDALA



ARANDOKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

Kultura eta Hizkuntza  
Politika Sailak  
(Hizkuntza Politikarako  
Saiburuordetzak)  
diruz lagundua.



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

**DOBERA BAZKIDEAK  
KRONIKALARIAK**

**TOKIKOM**





asmoa bagenuen, ahal den guztian laguntzeko. Oraindik bulego orduategia ez dugu zehaztu, baina gure telefonoak denon eskura daude.

**Merkatu ikerketa hori egitean, hainbat elkarte bisitatu dituzue. Zer topatu duzue?**

**Izaro Ariztimuño:** Gehienak LGTB elkarrekin ziren. Joan ginen ikustera zer lan egiten zuten, eta ikusi dugu ez dagoela ezer transei begira. Errespetuz elkarrekin ezagutu genuen, adibidez.

**B.A.:** Naizen-eko bozeramailearekin ere izan ginen, haiek zein lan egiten duten oinarri izateko, eta haiek ere gure lana ezagutzeko. Azken batean, haien umeak ere hazten ari dira. Gero, Harrotu elkarrekin ere egon ginen, Nafarroako elkarte bat. Haiek ere pixka bat guztia lantzen dute.

**Formazioa, laguntza... eskaini nahi duzue.**

**Baliabiderik badaukazue?**

**Gilen Larrañaga:** Hasiera batean honi guztiari forma eman behar diogu, oinarri bat jarri, eta ikusiko dugu gero, pixkanaka-pixkanaka, zein zerbitzu zabaldu.

**B.A.:** Etorritako planak da. Oraintxe deitu eta eskatuko baligute hitzaldi bat ematera joateko, joango gineteke, baina momentuz, nahiko airean dago. Gehiago da, oraingoz, kasu zehatzak ezagutu geo, horretan esku hartzea, eta laguntza eskatzen badute, horretan aritzea.

**M.E.:** Oraindik elkarte bezala ez, baina, maila pertsonalean, ni joaten naiz eskolara nire bizi-penak kontatzera. Ideia da joatea, nor garen azaltzea, eta gure bizi-penen berri ematea. Badago jendea antzeko gauzak bizitzen ari dena, baina ez ditu ulertzen, ez daki zergatik gertatzen zaion berari, eta oso ona da ikustea norbait zure aurrean, hori edo antzeko zerbait kontatzen ari dena.

**B.A.:** Uste dut Kattalin Mine-*rek* idatzitako liburuak (*Moio. Gordetzea ezinezkoa zen*. Elkar, 2019) ere pauso handia eman duela. Hernanin, behintzat, badago bidea hasita. Errazagoa da niregana hurbiltzea, ezagutzen nautelako eta bide bat eginda dagoelako, eta gero, elkartera bideratzea eta zabaltzea.

**Transexualitateaz gero eta gehiago hitz egiten dela dirudi. Zein behar ditu egun komunitate honek?**

**B.A.:** Askok hobetu da egoera. Naizen elkarteetan lan izugarria egin da, eta oso pil-pilean dagoen gaia da. Baina beti hurrei buruz hitz egiten da, eta guztiak ez dira lauzpabost edo sei urte-



Andoaingo Leitzaran institutuko ikasleekin artean eratu dute Loratuz lotu elkarrekin.

**«Desinformazioa badago, eta ondorioz, zurrumurruek, estereotipoak sortzen dira, nolabait, trans pertsonak bultzatzen dituen guretzako batere onuragarriak ez diren bide jakin batzuk jarraitzen»**

rekin konturatu edo bide hau egiten hasten, eta heldu asko ez dira ikusten, ezkutuan daude. Umeena oso ondo dago, eta lan ikaragarria egiten ari da, nahiz eta oraindik asko dagoen egiteko, baina uste dut helduetan oraindik behar handiagoa dagoela. Oraindik ezkutuko gaia da helduetan. Ikusaraztea eta indarra ematea falta da. Uler-taraztea ez dagoela gaizki, ahal duzunean onartzen duzula, eta ez, nahi duzunean.

**M.E.:** Informazioa ere falta da. Egia da gero eta gehiago hitz egiten dela gaiaren inguruan. Jende askok ezagutzen du 'transsexual' terminoa, eta ez du ikusten zerbait txarra bezala. Baina egia da, baita ere, desinformazioa badagoela, eta ondorioz, zurrumurruek, estereotipoak sortzen dira, nolabait, trans pertsonak bultzatzen dituen guretzako batere onuragarriak ez diren bide jakin batzuk jarraitzen.

**B.A.:** Batez ere, medikalizazioaren inguruan.

**M.E.:** Trans bazara, bai ala bai hormonak hartu beharra, edo operatu beharra edo halakoa edo halakoa izan behar duzula. Horrek kalte egiten digu.

**B.A.:** Cis-a lortzea, *passing*-era iristea, hau da, hainbeste aldatzekaren ondorioz, trans zarella nabaria ez denean; helburu hori lortzea. Eta ez du zertan. Bakoitzak nahi duen bidea egin dezake, eta erabakiak hartzea librea da. Ez du inora iritsi behar. Hori ulertarazi nahi dugu.

**M.E.:** Ez dugula gizon edo emakume itxura eman behar, dagoeneko bai baikara.

**Inkesta parean egin zuten azaroan, transexualitatearen inguruan datuak biltzeko. Zer jaso duzue? Harritu zarete?**

**M.E.:** Ni ez. Jasotakotik asko esperotakoa zen. Egia da inkesta horretatik ondorioztatu genuela 'transsexual' terminoa ezaguna dela, baina zalantza asko zegoen transexual eta transgenero izatearen artean dauden desberdintasunen gainean. Positiboa izan zen, bestalde, trans pertsonen esatea beharrezkoa ikusten zutela egiten ari garen hau egitea; oso polita iruditu zitzaidan. Inkesta desberdinak egin genituen trans eta cis pertsonentzat.

**B.A.:** Inkesta horren bidez ezagutu genuen, baita ere, Errespetuz. Uste dut harrigarriena iruditu zitzaiguna izan zela haien erantzuteko modua, jarrera. Joan ginen haiek ezagutzera, esan ziguten hasieran bai bazeuzka-

tela jendea elkartzeko zehaztutako egunak. Baina iritsi omen zen momentu bat, jendeak joan nahi ez zuena edo nahi ez zuen besteak jakiteak trans zirela. Horrek harritu gintuen, gure inguruan, behintzat, behar hori ikusten baitugu. Ez dakigu haien gauza den, edo han gertatzen den eta hemen ez... Bilbon daude, nahiz eta Euskadi osorako edo gehiagorako egiten duten lan.

**Brayan; Aimar Elosegiren kasua ezagutu zenuen. Aldatu dira gauzak azken hamarkadan?**

**B.A.:** Aimarren kasua, liburuan ere aipatu nuen, iritsi zitzaidan oso kasualitatez. Horri buruz ez da ezer jakin herrian, baina nabaritu dut, nire kasuan behintzat, nire onarpena erraztu egin duela. Nire bidea erraztu egin du, asko. Diferentzia handia dago. Ez dakit beragatik bakarrik izan den, transfeminismoak egin duen lana izan den, egungo errealitatea desberdina den... baina aldaketa pila bat nabaritzen da. Ni 18 urterekin konturatu nintzen, edo onartu nuen, eta etorri eta konturatu nintzen herrian onarpen handia zegoela. Gero, Moiren berri jakin nuen, eta ikusi nuen lanketa handia zegoela egina herrian. Beste herrietan ez dakit zein den errealitatea. Baina Hernaniko errealitatea oso desberdina dela iruditzen zait.

**M.E.:** Ni Iruñeko naiz. Nire kasuan, konturatu, edo konturatu baino gehiago onartu esango

**«Ez dakit Moirengatik bakarrik izan den, transfeminismoak egin duen lana izan den, egungo errealitatea desberdina den... baina aldaketa pila bat nabaritzen da. Lanketa handia dago egina Hernanin»**

**«Umeek askatasun handiagoa daukate transexualitatearen aldarrikatzeko, baina helduetan oraindik oso zaila da. Erreferente pila bat falta dira helduen artean»**

nuke, esatea hemen nago eta halakoa naiz, 17 urterekin egin nuen. Baina, berez, nik banekien lehenagotik. Lauzpabost urterekin hasi nintzen galde-tzen zergatik nik ez neukan gauzatxo hori, nire anaiak bazuen. Eta horrelakoak. Gero, sartu nintzen, bete-betean, emakumearen kanon estereotipatuan, hor nire burua aurkitzen saiatzeko. Baina ez. Uste dut gauzak asko aldatu direla. Nik zorzea izan nuen, nire lagunak hor egon baitziren momentu horretan. Baina bai sentitu nintze-la bakarrik, ez nuelako ia inor ezagutzen transexuala zena, eta nahiko gogorra izan zen. Orain baditut lagunak ni baino gazteagoak, prozesuarekin hasi direnak, eta gauzak asko aldatu dira. Erraztasun gehiago dituzte, onarpen handiagoa, eta erreferente gehiago. Hala ere, uste dut gauzak ez daudela berdin Hernanin edo Iruñean. Hemen, transfeminismoaren kontuarekin badirudi jendeak badakiela gehiago. Iruñean ez. Feminismoaren beste adar bat daukagu han, eta dezente jotzen da gizon transexualen aurka.

**B.A.:** Dena den, gu txikiak ginenean ez zen hainbeste kasu ezagutzen, eta Naizen elkarrekin ezagunagoa egiten ari da gaia, umeek askatasun handiagoa daukate transexualitatearen aldarrikatzeko eta transexual izateko. Aldaketa asko egin dira eta asko aurreratu da zentzu horretan. Baina, berriro diot; umeetan, nerabeetan bai, baina helduetan oraindik oso zaila dago. Erreferente pila bat falta dira helduen artean. **K**



# «Ikuslea emozionatzea erronka zaila da, baina horixe da nire argazkien helburua»

'Etiopia: Ibili kaleak' erakusketa jarri du Enaitz Semperena argazkilari hernaniarrak, Donostian, Correosen bulego nagusian. Bertan bildu ditu, Etiopian egindako egonaldian ateratako argazkiak, hango errealitatearen erakusle.

**HERNANI ARGAZKILARITZA**

Makina bat herrialdeetan egondakoa da Enaitz Semperena argazkilari hernaniarra, baina denetan bereziena izan du, Etiopiar egindakoa. Etiopia Utopia fundazioaren jarduna bertatik bertara ezagutu, eta argazkietan islatzeko aukera izan zuen, 15 egunez. Horiekin, erakusketa jarri du orain, Correosen Donostiako bulego nagusian (Urdaneta kalea, 7). *Etiopia: Ibili kaleak* du izena, eta martxoaren 31ra arte egongo da ikusgai, astelehenetik ostiralera 08:30etatik 20:30etara, eta larunbatetan 09:30etatik 13:00etara. Erakusketaren nondik norakoak eta Etiopiako bidaiari bizitakoak kontatu dizkio Semperenak, Kronikari.

**Etiopia Utopia fundazioarekin elkarlanean sortu duzu erakusketa. Nondik dator harremana?**

2017ko gabonetan ezagutu genuen elkar, beste proiektu baten inguruan eduki genituen elkarrizketa batzuen ostean eta, nahiz eta orduan ez zen ezer suertatu, ordutik hazia landuta geratu zen. Uste dut bi alderdietan sentsazio onak geratu zirela, eta urtebete beranduago argazkilaritza kolaborazioa proposatu nienean, erraza izan zen ideia definitu eta aurrera eramatea.

Azken urteetan herrialde asko ezagutu ditut, baina Etiopiako esperientzia guztiz ezberdina izan da. 15 bat egun pasa nituen guztira, gehien bat David (fundazioaren koordinatzailea) eta Anarekin (Menstrual Hygienic

Management proiektuko arduraduna), beraien eguneroko lana jarraitu eta fundazioaren proiektuak bisitatu. Aukera izan nuen, baita ere, denbora librean Mekele eta Wukrotik pasiatu eta argazkilaritza praktikatzeko.

Egunerokotasun honen parte izateak, edo bertako ONGko kideekin eskuz esku lan egiteak herrialdea eta kulturaren ikuspegi guztiz ezberdin bat ematen dizu, besterik gabe turista moduan joanda ikusi dezakezunarekin konparatuz. Hau izan da niretzat esperientzia honetatik daramadan baliogarriena.

**Eskola umeak hilerokoaz hizketan, 'ametsa' eta 'pasioa' hitzak atletismoari lotutako proiektuaren gaineko argazkietan, 'emakumeen indarra' ureztatze sistemaren ingurukoetan... Zer jaso duzu argazkietan?**

Joan baino lehen markatutako premisetako bat zen argazkiek, ahalik eta gehien, errealitatea irudikatu behar zutela. Orduan, gure argazkietan presako eraikuntzan emakumeak eta umeak badaude lanean, da hara iritsi ginenean han lanean zeudelako; edo atletismo pista harriz beteta badago, da horrelaxe zegoelako.

Guzti honekin erakutsi nahi duguna da (kasu honetan Etiopiako adibidearekin), herrialde azpigaratuak kontsideratzen ditugunetan badauzkatela gure gizartean galtzearen dauden hainbat indargune, eta haiengandik ikasteko ere badaukagula. Galderean aipatutakoak adibide batzuk besterik ez dira; beraz, gon-



Enaitz Semperena argazkilari hernaniarra.

**«Helburua da Etiopia Utopiak egiten duen lana ezagutzera eman, eta guk han bizitakoa partekatzea, etorkizunean lanean jarraitu ahal izateko»**

bidatuta zaudete erakusketara, esperientzia osoa ezagutzeko.

**Lau proiektu potolo garatzen ditu fundazioak han, eta haiek erretratatu dituzu. Zein helbururekin?**

Fundazioak lekuko hainbat Gobernuz Kanpoko Erakunderekin lan egiten du, eta lau hauek,

momentu horretan martxan zituzten proiektuak besterik ez dira. Argazkilaritza proiektu honen bitartez, eta aurreko galderean aipatutakoaz gain, helburua da Etiopia Utopiak egiten duen lana ezagutzera eman eta guk han bizitakoa gure lagun eta ingurukoekin partekatzea, etorkizunean lanean jarraitu ahal izateko.

**Argazkilaria bera hunkitzea ezinbestekoa da, ikusleari emozio hori helarazteko?**

Nahiz eta aro digitalean argazki bat gehiago egiteak ez daukan inongo ondorioz, ni beti saiatzen naiz ateratzen dudana fotografia bakoitzean arrazoi edo motibo bat bilatzen; ondorioz, bai, zerbait ikusi edo sentitu be-

harko nuke argazki bat egin baino lehen.

Erlatiboki, Etiopian bizi eta ikusi dudananaren zati txiki bat fotografiatu dudala esan nezake, eta atera nituen argazki guztietatik 38 bakarrik aukeratu ditugu erakusketarako. Ikuslea emozionatzea erronka zaila da, baina horixe bera da helburua, eta zorte pixka batekin, baten bati barrenak mugituko dizkio argazkiren batek.

**'Ibili kaleak' argazkigintza proiektuaren lagina ere gehitu duzu erakusketan, eta errealitatea baino, sentsazioak, emozioak islatu nahi izan dituzu. Zerk emozionatzen zaitu zu?**

Oraingoz gehien gustatzen zaidan argazkilaritza mota, kaleko

**SAGARDOAREN ERREMONTA 2020**  
**MARTXOAK 14** Larunbata **16:00H**  
**EZKURRA II ZUBIRI** VS **GOIKOETXEA V AIZPURI III**  
 ERREMONTA BIZIRIK



argazkilaritza da. Estilo honetan ez dago ezer prestatua, ez daude modeloak eta inork ez daki erretratatu izaten ari dela. Horrela, gure eguneroko bizitzan oharkabeen pasa ahal zaizkigun une horiek dira, fotografiatzea gustatzen zaizkidanak. Baina ez hori bakarrik. Momentu, begirada edo akzio hauek beti ere egoera edo testuinguru batean egon behar dute, eta nola ez, argiak, koloreak edo kontrasteak funtsezkoak dira emaitza on bat lortzeko.

Faktore guzti hauek bat egiten dutenean, eta zorte pixka batekin, zerbait transmititzen duen argazki bat lortu dezakezu.

**Zure webgunean diozu 2018an itzuli zinela argazkilaritzara, New Yorken zerbait ikusi zenuelako... Zer?**

2018ko udara Estatu Batuetan pasa nuen, eta New York hainbat asteburutan bisitatzeko aukera izan nuen. Hiriak badauka hitzekin azaldu ezin den zerbait, bakarra eta paregabea egiten duena; eraikin izugarri altuak, mota guztietako jendea, estoldetatik ateratzen den kea, pelikuletan ezagutu dugun polizia... Eta horrek guztiak kaleko argazkilaritza praktikatzeko leku ezin hobea bilakatzen du. Gainera, horrelako hiri haundietan sortzen den inpersonal-tasun mailak lana errazten du: inork ez zaitu ezagutuko, inork ez dizu gaizki begiratu, eta inork ez dizu galdetuko zertan ari zaren. Ez da, alabaina, betirako bizitzeko aukeratuko nukkeen lekua (barrez).

**Zuri-beltzekoak, kolore bizikoak, gauekoak, hiri argazkiak, erretratuak... Estilo konkreturik baduzu?**

Zuri beltzak badauka marka atemporal edo bereizgarri bat, koloretako argazkietan galdu egiten dena, eta niri asko gustatzen zaidana. Horrela, oraingoz behintzat, estilo horretan ari naiz gehienbat lanean, eta horrelaxe egin dut Ethiopian garatutako *Ibili Kaleak* proiektuan. Bestalde, fundazioak parte hartzen zuen proiektuetarako, kolorea erabiltzea izan da zentzuzkoena, argazkilaritza dokumentalagoa egiteko eta errealitatea irudikatze askoz ere aproposagoa izateagatik.

**Gehiago arakatzeko asmorik baduzu?**

Batzuetan argazki batek koloretan izatea eskatzen du, eta kasu horietan ez daukat inolako arazorik, horrela izan dadin. Zenbat eta argazkilaritza gehiago praktikatu, nahi gabe, beste hainbat estilo ukitzera iristen zara, eta ikasketa prozesua amaigabea da; beraz, dibertigarria edo gus-

**«Gure eguneroko bizitzan oharkabeen pasa ahal zaizkigun une horiek dira, fotografiatzea gustatzen zaizkidanak»**

**«Zuri beltzak badauka marka atemporal edo bereizgarri bat, koloretako argazkietan galdu egiten dena, eta niri asko gustatzen zaidana»**

**«Momentua, begirada, akzioa, argiak, koloreak, kontrastea... Guztiak bat egiten dutenean, eta zorte pixka batekin, zerbait transmititzen duen argazki bat lortu dezakezu»**

tukoa dudan bitartean, ikasten eta jardunean jarraitzeko asmoa daukat, bai.

**Noiz arte ikusi ahal izango da erakusketa hau, Correosen? Eta aurrera begira, zer?**

Dagoeneko ikusgai dago, martxoaren 9tik, eta hilabete inguruko iraupena izango du. Dena den, Donostiako Correoseko bulegoan ez da erakusketa osoa egongo, toki nahikoa ez dagoelako. Gure hurrengo urratsak esposizioa ahalik eta toki gehienetara eramatea da, ahalik eta oihartzun gehien emateko. Beraz, irakurleen batek interesa balu, jarri dadila gurekin kontaktuan.

Gainera, erakusketan ikusgai dauden argazki guztiak salgai daude, eta hortik lortutako irabazkiak fundazioarentzat izango dira, lanean jarraitu eta proiektu berriak bilatzeko.

Bestalde, nire aldetik argazkilaritzarekin jarraitzeko asmoa daukat noski, bai Bartzelonan lantzen ari naizen kaleko argazkilaritza proiektuarekin (Instagramreko @bcn50mm kontuan), bai etorkizunean egin ditzakidan bidaietan, edo zeinek daki, beste edozein erakunderekin kolaboratzen. **K**



Enaitz Semperena, Davidekin, Etiopia Utopia fundazioako koordinatzailearekin, Ethiopian egindako egonaldian.



Etiopiako egunerokoan ikusi eta bizitakoak jaso ditu argazkietan, Enaitz Semperenak.



Erakusketako argazkiek, Etiopiako errealitatea den bezalakoa islatzen dute; zegoen bezala erretratatu zuen dena.



# «Etxebizitza hobea lortzeko tranpolina izan behar zuena, amildegirako tranpolina izan da»

Sagastialde 19 zenbakiko 15 bizilagun antolatzen hasi dira, duela bost urte egokitu zitzaizkien zuzkidura-bizitokiak (etxebizitza dotazionalak) utzi egin beharko dituztelako. Bertan sartzean, bazekiten 5 urterako zela, baina egoera hobetu edo legeak aldatuko zirela esperantza zuten.

## ETXEBIZITZA SAGASTIALDE

Duela 5 urte, 2015ean sartu ziren bizilagunetako gehienak Hernaniko Sagastialde auzoko 19 zenbakiko etxebizitzetara, Etxebide, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitzaren Euskal Zerbitzuaren bitartez. Etxebizitza dotazionalak dira, eta, beraz, bazekiten bost urterako sartuko zirela bertan, luzatzeko aukerarik gabe. Baina, «sinatzean, ilusioarekin egiten duzu», diote. «Espero duzu legea aldatuko dela, edo bost urtera, luzapena eskainiko dizutela. Izan ere, ez da zentzuzkoa, familia behartsuak izanik, aukera hori ez ematea. Baliabide gehiago dituztenei, alokairuko etxeetan kontratua berritzeko aukera ematen diete 7 urtera».

Hori dute arazo. Maiatzean, kontratuan zehaztutako bost urteak pasatzean, etxe hauetako giltzak itzuli beharko dizkio-tela Etxebideri. Martxan jarri dira irtenbideren bat bilatzeko.

### Maiatzean, kalera

«Denok jo dugu Hernaniko Zerbitzu Sozialetara. Hemen, denera, 58 familia gara. Horietatik batzuk beren bidea egin dute, baina beste 30etik gora bagara, etxea utzi beharko dugunak. Batzuek ez dute hemen jarraitzeko interesik, eta gainontzekoen artean 15, antolatu egin gara».

Baldintza desberdinak dauzkaten familiak direla azaldu dute. Baina denek dute «ezaugarri konun bat: baliabide gutxiko pertsonak gara». Horri, egungo etxebizitzaren merkatuaren egoera gehitu behar zaio. «Ibili gara etxe bila, eta denetariko egoerak topatu ditugu. Inmobiliaria batzuetan banku-abala eskatu digute, eta bankura jotzean, daukagun soldaterekin ez digutela emango esan digute. Beste batzuetan aseguruia eskatu digute. Neurriko eskaera da, ezta? Urteko aseguruia 350 edo 400 euroren artean ordaindu, eta alokairuaren ordainketa aseguratu. Baina paperak erakutsi aseguruian, eta ez gaituzte onartzen. Eta horrez gain, ez hanka eta ez buru daukaten egoerak ere bizi izan ditugu. Adibidez, sei hilabete edo ur-

**«Uste da ez dugula lanik egiten, besteen kontura bizi garena nahi dugulako, alferrak garena. Baina gehienok lan egiten dugu»**

tebete aurretik ordaintzeko edo 700 euroko fidantza eskatzea, eta hori legez Jaurlaritzarentzako denez, beste lau hilabetetako depositoa uzteko eskatzea, eta hori erregistratuta geratzeko 'paper bat' egingo digutela esatea. Hori, Hernaniko inmobiliaria batean gertatu zaigu».

Gauzak horrela, zer egingo duten ez dakite. «Aurrenekoek maiatzaren 25ean utzi beharko dituzte etxeak. Hurrengo taldeak, ekainaren 20an, eta hurrengoak uztailearen 20an. Abuztuan ere bai besteren batek. Ez da komunikazio biderik ireki. Joan gara bakarka eta taldean, entregatu dugu eskutitza. Baina erantzuna, beti, bera: 'giltzak entregatu behar dituzue'».

### Erantzunen zain

Erantzunen baten bila, hainbat ate jo dituzte. «Alokabiden esan ziguten ulertzen gintuztela, baina haien lana etxeak administratzea zela. Etxebide da jabea, eta Alokabide, administratzailea. Etxebidek, eraikina egin, eta etxebizitza dotazionalak edo alokairukoak izango diren erabakitzen du, eta Alokabideri ematen dizkio giltzak, eta esaten dio, dauzkan zerrenden arabera, nori eman».

Etxebidek erantzunik ematen ez diela diote. «Ilusio haundiarekin etorri ginen. Esan ziguten hau tranpolin bat zela, etxebizitza hobea, betirako izango zena lortzeko. Baina gure aldetik jarri beharko genuela». Eta adibidea jarri dute. «Jarri dut nire aldetik. Lehen lalnaldi erdian aritzen nintzen, eta orain osoan lan egitea lortu dut. Baina miseria hutsa kobratzen jarraitzen dut». Desgaitasuna duen langilea da. «Lehen zela batean bizi nintzen, eta orain, Zerbitzu Sozialetan horixe esan didate; 50 urterekin gela bat bilatzeko. Baina, gehienak, ikasleen ikasturte



Sagastialde 19 zenbakiko 15 bizilagun ari dira borrokan, kanporatuak ez izateko.

garaian egoten dira aukeran, 400 euro eskatzen dituzte, ezin dut bertan errolatu... Hori da merkaturuan aurkitzen duzuna, alokairua bilatzean».

### Alkatea, bitartekari

Udalean ere saiatu dira, eta «alkatearengandik irudipen ona» jaso zutela diote, «baina udalerekin ez du zerikusirik. Zerbitzu Sozialekin bitartekari lanak egiten saiatuko zela esan zigun, premiazoak ziren kasuekin. Hernanikoa den jende helduarekin bereziki arduratuta zegoen. Baina, zer dira premiazo egoerak?».

Xabier Lertxundi alkatea, hain zuzen, azaldu du bildu dela Gipuzkoako Etxebizitza Deleatuekin, Alfonso Sanzekin. «Hasteko, Jaurlaritzak dio ez dela gauza bera babestutako etxebizitza eta etxebizitza dotazionala. Hauek bost urterako dira. Ez ditu etxebizitza gisa aintzat hartzen, denboraldi baterako dira. Udalak, adibidez, badauzka etxebizitza bihurtutako lokalak, baina lokalak direnez, dotazionalak dira eta ezin dira bost urtetik gorako kontratuak egin. 65 urtetik gorakoei ematen saiatu gara, baina ezin da. Sagastialde Jaurlaritzarena da, eta Udalak ez du zerikusirik. Bizilagunek bazekiten bost urterako zirela. Teorian dira, hortik atera eta hobetzeko aukera bat. Errealitateak, ordea, erakusten du askok ez dutela aukera hori izan. Etxebidek dio etxebizitza eskuratzeko eskubide subjektiboa dutenei ostatu emango diela; diru-sarrerak kontuan hartuta ematen da eskubide hau, baina ez dakit zenbatek daukaten».

**«Sozialki egoera zaurgarriak sortu dira» alkatearen esanetan»**

Non emango zaien ostatu, ordea, arazoa da baita ere. «Bizilagunek ez diote Udalari eskatu ostatu emateko, ez baitauka ahalmenik horretarako, ez da gure eskumena. Gainera, Udalak dauzkan etxeak okupatuta daude, edo nor sartu badago. Nik bitartekari lanak egiteko konpromisoa hartu dut. Izan ere, denek ez dute eskubide subjektibo hori, eta beraz, zer; 80 urteko emakumeak, orain diru sarrera pixka bat altuagoa duelako, kanpora joan behar du? Beste herri batera? Sozialki egoera zaurgarriak sortu dira. Umeak dauzkaten familiak ere badira. Hona etorri ziren beste herri batzuetatik, eta orain, umeekin, beste nonbaiten hasi beharra dute? Deserrotzea sortzen da».

Hau guztia horrela, «Zerbitzu Sozialetara etorri diren familien informazioa emango diogu Etxebideri, egoera sozial horiek kontuan hartu ditzan. Hori esan nien bizilagunei. Gehiago ezin dugu egin. Eta Jaurlaritzari eskatu diogu, aurrera begira, horrelako etxeak esleitzean baldintzak berraztertzeko».

### «Alferrak garena uste da»

Egoera bestela ere nahiko larria bada, gainera, gizartean dagoen usteari aurre egin beharra daukatela diote bizilagunek. «Gizartean uste da ez dugula lanik egiten, besteen kontura bizi garena nahi dugulako, alferrak

garena. Baina gehienok lan egiten dugu. Gainerakoan artean, gehienak pentsiodunak dira, eta gutxi batzuk dira Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (RGI) jasotzen dutenak; guraso bakarrek familai osatzen duten ama-alabak edo hiru seme-alabako familia. Baina gehienok lan egiten dugu. Arazoa da soldata miseraleak dauzkagula, eta ez direla nahikoa merkatuko alokairu bat ordaintzeko».

Etxe hauetan bizitzea ere ez da erraza, diotenez. «Badirudi hau errenta soziala dela. Baina gastu haundiak ere badauzka: 60 euroko komunitateko gastua, lorezaintza zerbitzua, kobratuko ez zigutela esan eta bi hilero uragatik 80 euroko gastua, galdararen mantenturako 30 eurokoa... Baina ez gara hori guztiagatik kezaketen. Eta bestelako arazoak ere izan dira, adibidez, zaborrekin. Batzuek gaizki ateratzen zuten, ohitura faltagatik-edo, eta bitartekari lanak egin ditugu. Eta orain? Ixiltasuna. Tranpolina izango zela zin egin ziguten. Eta etxebizitza hobea lortzeko tranpolina izan behar zuena, amildegirako tranpolina izan da».

### Kaleratzeak Stop, azken ixaropena

Orain arte jasotako erantzunen aurrean, Kaleratzeak Stop elkar-tereangana ere jo dute bizilagunek, laguntza eske. Ostegunean bildu ziren. Hauek, bakoitzaren datuak eta errealitatearen berri jaso dute, eta legalki ahal duten laguntza guztia emateko konpromisoa hartu dute. «Beti, beraien atzean jarrita. Beraiek erabakiko dute zer egin nahi duten». **K**



# Txotx denboraldia eten eta taberna eta parkeak ixtea, COVID-19aren aurkako azken neurriak

Sagardotegi guztiak itxi dira. Hernaniko Berriak elkarteko tabernak ere bai, eta baita parkeak ere. Adinekoen zentroan ere, bisitak debekatu dira. Astigarragako Zipotza ere itxita dago. Eta zerbitzu eta ekitaldiak bertan behera geratu dira.

## URUMEA KORONABIRUSA

Gaixotzea saihesteaz gain, COVID-19 edo Koronabirusaren hedapena murriztu eta osasun zerbitzuak gainezka ez egitea dira, birusaren aurka hartu diren azken neurrien helburuak. Horretarako, Eusko Jaurlaritzak atzo osasun larrialdi egoera indarrean jarri zuen EAEn, eta hori horrela, baliteke herritarrek etxeetan edo toki seguruetan konfinatzeko eskatzea edo arrisku guneetatik atera edo urruntzea eskatzea.

Bitartean, Urumea bailaran ere hainbat neurri hartu dira. Azkenak, txotx denboraldia etetea, zaharren egoitzan bisitak debekatzea, parke eta tabernak ixtea, eta kirol eta kultura jarduerak guztiak bertan behera uztea.

## Zaharren egoitza, itxita

Azken neurriaren berri atzo 20:00ak inguruan eman zuen Hernaniko Udalak; adinekoen eguneko zentroa itxita egongo da, eta adinekoen egoitzan ezin dira bisitak egin. «Kolektibo zaurgarriena izanik, beraiek babesteko neurriak zorrotz dira».

## Sagardotegiek «arduraz» hartutako erabakia

Egunean zehar, beste erabaki batzuen berri eman zen. Hernani eta Astigarragako sagardotegiek eguerdian hartu zuten ixteko erabakia. Prentsaurrekoa eman zuten Xabier Lertxundi, Hernaniko alkateak eta Jon Peña, Hernaniko sagardogileen ordezkariak, erabakiaren berri emateko. «Sagardo denboraldiak Hernaniri arrisku larriak ekarri diezazkiokeela ikusita, sagardogileekin bildu gara, eta sagardogileek arduraz jokatzeko erabakia hartu dute», azaldu zuen alkateak. Dena den, azpimarratu zuen «txotx garaia eten bai, baina ez dela bukatu».

Jon Peña jakinarazi zuen sagardogileen elkarte guztiak ere eguerdian biltzekoak zirela, eta arratsaldean eman zuten berria. «Prebentzio neurri moduan, 15 egunez bazkari eta afari zerbitzuak etetea» erabaki zuten Arabako Sagardogileen Elkarteak, Sagar Uztak, Sagardo Mahaiak, Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteak eta Euskal Sagardoa Jatorri Deiturak. Udalak gehitu zuen «txotx denboral-

diarekin lotutako beste hainbat zerbitzu ere bertan behera geratu» direla: sagardotegietarako bus zerbitzua, puntu morea eta Sagardoetxea eta bere agenda. «Udalaren iritziz, sagardotegiek erantzukizunez eta arduraz jokatu dute, eta bat egin dute Astigarragako herria, eta Euskal Herria orobat, hartzen ari den erabaki eta neurrien norabidearekin, denon ardura eta egitekoa delako koronabirusaren gaixotasuna ez zabaltzeko behar diren neurri guztiak hartzea».

## Tabernak itxita; dendak ez

Era berean, Berriak, Hernaniko Merkataria eta Ostalarien Elkarteak atzo arratsaldean egin zuen bilera, eta elkarteko 23 tabernak ixtea erabaki zuten.

Mertxe Jimenez, Berriak elkarteko ordezkariak azaldu zuen «herriarekiko ardura» dutela. «COVID-19 birusaren foko izan gaitezke tabernak». Era berean, astelehenean ixteko agindua iritsi daitekeela aurreikusita, «aurrea hartzea» erabaki zuten. Berriak elkartekoak ez diren tabernei dagokienez, erabakia haiena bada ere, «ixteko gomendioa» ere luzatu zieten.

Astigarragako Zipotzak, esaterako, sare sozialen bitartez zabaldu du elkarte eta taberna ixteko erabakiaren berri.

Gainerako komertzioak, bestalde, irekita mantenduko dira oraingoz. «Baina, elikadurari lotutakoak kenduta, hutsik daude. Ez dute ezer saldu. Oraingoz ez dira itxiko, larunbat goiza bakarrik geratzen baita, astelehena baino lehen. Astelehenean ikusiko da erakundeetatik zer esaten duten».

## Parkeak ere itxita, eta ekitaldi guztiak bertan behera

Beste neurri baten berri Hernaniko Udaltzaingoak zabaldu zuen. Kanean dauden haurren parkeak ixteko agindua eman zuen Udalak, osasun larrialdi egoera medio. Prezintatuta daude. Bestalde, Al Risala islamiar zentroak jakinarazi zuen ostiraleko *jutba* bertan behera geratu dela denbora batez; oraingoz, martxoaren 24ra arte.

Horren aurretik, ostegunaz geroztik itxita daude kiroldegia, Biteri eta liburutegia, musika eskola, udal euskaltegia, Goiz Eguzki jubilatuen etxea, Plaza Femi-



Sagardotegiak ixteko erabakiaren berri eman zuten Udak eta sagardogileek.

nista, Gaztelekua edota Gabriel Zelaia ikasgela zerbitzua.

Astigarragan ere, atzo itxi ziren kiroldegia, gazte informazio

puntua, Zarkumendegiko futbol zelaia, KZ Gunea, kultur etxea eta liburutegia, musika eskola, Gaztelekua, Galtzaur jubilatuen

elkartera, Jolasberri-Arrobitxulo eta AEK.

Goizuetan, bertan behera geratu dira gaur Bardoak txapelketako finalerdia eta martxoaren 27 eta 28ko Katarrapikaka Tiki lehiaketa eta *Dama beltzak* kontzertua, eta baita ikastaroak ere: pilates, jumpfit, total training eta eskulanak.

Ereñotzun ere neurri berak hartu ditu Auzo Udalak, eta bertan behera geratu dira gazte txokoa, yoga, ikastaro ezberdinak, haur zaintza zerbitzua, Berriketan eta bestelako jarduerak guztiak.

## Laguntza sarea, Urumea Herrigunean

Dena ez dira mugak, ordea. Hernaniko Urumea Herrigunean zaintza talde boluntarioa antolatzen ari dira «arrisku gien hantzen duen jendeari etxetik kanpoko enkarguak egiteko edota haurrak etxean zaintzeko». Antolatzean emango dute zerbitzuaren berri. **K**

Benetako  
hernaniarrek  
Hernani Txartela



BIZI, EROSI  
ETA MAITE  
HERNANI



## HERRIA BABESTUTAKO EDUKIA

Hernani Txartela da hernaniar guztiok batzen gaituen visa txartela. Izan ere, hernaniarrok ez gara nolana hikoak, eta gure visa txartela propio daukagu. Goazen tokira goazela ere, erosketak txartelarekin ordaintzean nongoak garen harrotasunez erakusten dugu,

visa txartelaren bidez, Hernanitik goazela eta hernaniarrek garela. Ez gara edozein Hernanin!

Gainera, gure herriaren izena eta nortasuna lau haitzeta zabaltzeaz gain, herria bizirik mantentzen laguntzen dugu, Hernani txartelarekin ordaindutako diru kopuruaren %0,10a herrira baitator buel-

tan; hain zuzen ere, Hernaniko komertzioa sustatzeko ekitaldietara bideratuko dena.

## Nola eta non eskuratu zure Hernani Txartela?

Hernani txartela guztiz doakoa da, eta hori eskuratzeko ez duzu ohiko banketxez aldatu beharko.

Beraz, Hernani Txartela visa eskuratzeko zu bakarrik falta bazara, kontuan izan hiru modu dituzula lehenbailehen eskuratzeko:

1. [www.hernanidendak.eus](http://www.hernanidendak.eus) webgunean.
2. Rural Kutxa banketxean (Txirita kalea, 20).
3. Berriak Elkarteko bulegoan (Andre kalea 30).

Benetako hernaniarra bazara, eta Hernani benetan maite Hernani Txartela eskuratu eta erabili behar duzu!





Jerejef elkarteak haur talibeen inguruko informazioa eman zuen Nibirun.

## Materiala biltzeko azken astea, Senegalera bidaltzeko

Nibiru edergintza zentroak eskolarako eta sendaketarako materiala bilduko du hilaren 21era arte.

### HERNANI ELKARTASUNA

Martxoaren hasieran hasi zen Izpizua kaleko Nibiru edergintza zentroa Senegalera bidaltzeko materiala biltzen, eta hilaren 21era arte jarraituko du horretan.

**Zer bildua, zerrendatuta**  
Behar den materiala zehatz zerrendatu dute.

Horrela, eskolarako, ondorengo materiala ari dira biltzen: koadernoak, folioak, arkatzak, plastilina, pegamina, kanikak, pegatinak, borragomak, linterak edota txorroskiloak.

Sendaketarako, berriz, bes-telako hau: ur oxigenatua, betadine edo pomada antiseptikoa, hesgailu edo apositoak, gasak, esparatrapua, konpresak, erreduretarako pomada, ziztadetarako krema, eltxo uxagarria, suero fisiologikoa, ibuprofenoa, beherakoa gelditzeko, umeen sukarra jaistekoa, umeentzako antibiotikoa, umeentzako antiinflamatorioa eta umeentzako parasetamola.

**Haur talibeei buruz, Jerejef**  
Bilketaz gain, hitzaldia ere antolatu zen pasa den astean Nibirun, Senegal, Ginea, Gambia, Mauritania edo Malin jaiotako haur talibeen inguruan. Izan ere, gurasoek baliabiderik ez dutelako, Marabu Koraniar eskoletako maisuen zaintzapean utzitako 4 eta 18 urte arteko haur hauek «bazerkeria, pobrezia, esplotazioa eta indarkeria» jasaten dituzte, eta «bidegabekeria hori ezagutaraztea» izan zuten helburu.

Jerejef elkarte boluntario talde batek osatzen du, Senegalgo hainbat proiektu ezagutu eta horietan parte hartzen duena. **K**

## Emakume langileak, zentrorra

### KONTRAKANTXA M8

Hainbat ekitaldi antolatu zituen Kontrakantxa Gaztetxeak pasa den astean. Besteak beste, Martxoak 8aren harira, feminismo proletarioaren erronken inguruko hitzaldia izan zen larunbatean. Horrez gain, arratsalde irekita egon zen gaztetxea, aisialdirako espazio gisa. Gaur ere irekiko da.



Martxoaren 8aren harira hitzaldia izan zen Kontrakantxa Gaztetxean.

## Babesa eta eskerrak, eraso jasotako emakumeei

Koronabirusa saihesteko neurriak medio, kontzentrazioak ez da deitu, baina gertaerak salatu nahi izan dituzte.

### BERDINTASUNA HERNANIKO KOORDINADORA FEMINISTA

Azken eraso matxistak salatze-ko prentsa oharra kaleratu du Hernaniko Koordinadora Feministak. «Oraingoan, kontzentrazioak bertan behera utziko ditugu, Covid 19a saihesteko neurriak direla eta. Hala ere, gure haserrea adierazi nahi dugu, eta ozen esan, indarkeria matxista eguneroko pandemia bat dela».

### Bi erasoren salaketa

Kontzentrazioak gabe ere, azken asteko erasoak salatu nahi izan ditu Koordinadora Feministak.

### Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

Batetik, Hernanin pasa den asteburuan izandakoa. «Batetik, pasa den asteburuan herriko kirol klub bateko gizon baten-gandik bi emakumek jasandako eraso sexistak gogor salatu nahi ditugu. Nazkatuta gaude emakume izate hutsagatik jasaten ditugun erasoez».


Eskerrak ere eman nahi izan dizkie, gainera, bi emakumei. «Erasotuak izan ziren emakumei gure babesa eta elkartasuna adierazi nahi diegu eta eraso publikoki salatzeagatik eskerrak eman; bai, Hernanin gure kale eta tabernetan jasaten baititugu eraso matxistak, eta haserre gaude. Ez ditugu jarrera ez eraso matxistak zein sexistak onartuko. Autodefentsa feministaz erantzuten jarraituko dugu».

Bestetik, asteazkenean senarra eta aita zenak Abantoko ama-alabak erail izana ere «gogor salatu» dute; «indarkeria matxistaren aurpegi latzena». **K**

**ESKERTZA**  
**Loren Iturriza Aranguren**

Orain egun gutxi hil zen  
**- Goian bego -**

Lorenen familiak eskerrak eman nahi dizkizuegu modu batera edo bestera gure ondoan izan zareten guztiei eta baita elizkizunetara etorri zireten guztiei ere.  
**ESKERRIK ASKO GUZTIAGATIK**



Hernanin, 2020ko martxoaren 14an

XVI. URTEURRENA  
**Kontxi Sanchiz**

«Maite zaitugu»

**ETXEKOAK**



Hernanin, 2020ko martxoaren 14an

**FUNERARIA ORBEGOZO BEILATOKIA**

**Asegururik ba al duzu?**  
**Deitu Orbegozora**

24 orduko tlfnoa.  
**943 33 10 20** [www.funerariaorbegozo.com](http://www.funerariaorbegozo.com)

- \* Zerbitzu partikularrak eta aseguru etxeekin
- \* Beilatokiak
- \* Errausketak
- \* Lekualdatzeak
- \* Eskelak, koroak...



Zentrala Latsunbe 7, Hernani

HERNANI · ANDOAIN · ASTIGARRAGA · URNIETA · GOIZUETA



## Erribera edo Manttoniren artean erabaki behar da kultur etxe berriko izen berria

Botoa eman dezakete martxoaren 17ra arte, Astigarragan erroldatuta dauden 16 urtetik gorakoek. Botoa eman behar da webgunearen bidez, aurrez erregistratuta, 'https://labur.eus/Snds6' eta minutu batean egiten da.

### UDALA KULTURA

Kultur Etxe berriko lanak amaituta, une honetan Udala ekipamenduak prestatzen ari da: ikus entzunezko ekipamendua, altzariak eta beste hainbat ekipamendu. «Izenik ez duena, ez da» dio esaera zaharrak, eta, beraz, kultur etxe berriari izena jartzeko unea iritsi da Udalak adierazi duenez. Martxoaren 17ra arte dago epea bozkatzeko.

### Bi izen hobetsi dira: Erribera eta Manttoni

Proposamenak aurkezteko epean hainbat proposamen jaso dira eta, aztertu ondoren, bi hobetsi ditu. Baztertu egin dira toponimo nahasgarriak (gertuko beste kale edo ingururen batenak direnak) edota desegokitzat

jo direnak. Era berean, hobetsi dira kokapenarekin zerikusia dutenak edota Kulturako Batzordeari egokiak iruditu zaizkionak. Horren guztiaren ondorioz, Kultura Batzordeak erabaki du bi hobestea eta bi horietatik zein aukeratu erabakitzeko inkesta bat egitea. «Lehen inkestan tresna desegoki bat erabili genuen eta hainbat pertsona botoa behin eta berriz ematen ari zirela ikusita, Udalak erabaki zuen bertan behera uztea».

Proposamenak hauek dira: Erribera; eraikina kokatuta dago Urumearen erriberan. Inguru hori bertakoen hizkeran erribera izan da (erriberako baratzak). Proposamen hau egokitzen jo da bertako kokapenarekin lotutako herri hizkerako toponimoa delako. Manttoni; sagar mota bat



Kultur etxeako eraikina amaituta dago.

da eta emakume izena. Jateko ere bikaina da. Mikatz puntu bat du, gazi puntu bat eta azukrea, baina neurrian. Proposamen hau egokitzen jo da sagarra (nortasuna) eta emakume izena delako.

Bozketan parte hartzeko: <https://labur.eus/Snds6>.

### Bigarren inkesta jarri da martxan eta 100 boto behar dira gutxienez loteslea izateko

Bigarren inkesta hau egiteko Foru Aldundiak landu eta prestatu duen Partaidetzarako plataforma erabiliko da. Botoa

eman ahal izateko, aurrez erregistratu egin behar da. Erregistratzeko oinarritzko datuak adierazi behar dira (erraza da, minutu batean egiten da). Erregistratzeko datuetan NAN zenbakia adierazi behar da, besteak beste. Sistemak egiaztatuko du adierazitako NAN zenbakia Astigarragan erroldatuta dagoen ala ez.

Boto kopurua 100 baino txikiagoa baldin bada, emaitza ez da loteslea izango eta Kultura Batzordeak erabakiko du. Kopuru hori gaintzen bada, erabakia loteslea izango da. **K**

## Giza Katea eta astearteko deialdia geldituta

DBHren aldeko plataformak deituak zituen bi ekitaldiak atzeratu egin ditu oraingoz hartu diren neurriengatik.

### DBH KORONABIRUSA

Azken egunotako egoeraren ondorioz Eusko Jaurlaritzak zein Astigarragako Udalak koronabirusa ez zabaltzeko neurriak eta erabakiak hartu ditu. Horien artean herriko elkarte eta herritarrei dei egiten di zentzuz eta arduraz jokatzeko eta osasun agintaritzak emandako jarraibide eta gomendioak betetzeko eskatzen dute.

Horregatik, «DBH Astigarragako aurreikusita zituen ekintza guztiak atzeratzea erabaki dugu, hain zuzen ere martxoak 17ko prentsurrekoa eta Giza Katea. Aurrerantzean eta egoera normaltzen doan neurrian jasoko duzue gure berri.

Ekitaldi guzti hauek Astigarragan DBH egotea ahalbidetzeko bultzatu dira azken bi urteetan. **K**

## Abanton gertatutako bi hilketak gaitzesteko adierazpena

Bi emakumeren hilketak direla eta, Udalak gaitzespen adierazpena onartu du eta elkarretaratzea egin zen ostegunean.

### UDALA GERTAERA

Astigarragako Udalak bere gaitzespen irmoena azaldu zuen Abanto Zierbenan asteazkenean gertatutako bi emakumeren hilketen aurrean, eta elkartzuna adierazten die senideei eta biktimen hurbilekoei.

Astigarragako Udalak gogorarazten du heriotzek emakumeenganako indarkeriaren arazoaren alderdi bat baino ez dutela erakusten, izan ere, egoera hori emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunean sortzen da. «Emakumeenganako indarkeria (psikologikoa, ekonomikoa, fisikoa, sexuala) emakumeen duintasunaren eta segurtasun fisiko nahiz moralaren aurkako eraso larria da,



Abanto-Zierbenan gertatu dira hilketak eta kontzentrazioak egin dira bertan ere.

eta, ondorioz, giza eskubideen urraketa larri eta onartezina».

Udalaren adierazi duenez, «tragedia honek berriro dakargigu gogora hala erakundeek nola euskal gizarte osoak daukagun erantzukizuna, gure udalerrietan berdintasuna eraginkor egiteko. Zentzu horretan,

gure sentsibilizazio eta prebentzio ekintzak indartzen jarraiu behar dugu, etorkizuna ordezkatzeko dutenei zuzenduta, gure herritar gazteenei zuzenduta, alegia». Hilketak horiek gaitzesteko, Udalak deituta, elkarretaratze ixila egin zen ilunabarrean Joseba Barandiaran plazan. **K**

## Santiomendiko sagardo bidea, atzeratuta

Bihar egitekoa zen Lourdes Odriozolak gidatuta bertako baserrien historia azalduz ibilaldian zehar.

### SAGARDOA IRTEERA

Santiomendiko sagardo bidea esploratze aldera ibilaldiak antolatzen ditu Sagardoetxeak, baina biharkoa bertan behera geratu da, Astigarragako kultur agendan zegoen gitarau guztia bezalaxe, koronabirusaren krisia dela eta. Martxoaren 29an egitekoa zen baita ere, baina hori ere oraingoz ez da egingo. Hala ere Sagardoetxeak urtean zehar antolatzen du ibilaldia eta seguru aurrera begira egin daitekeela.

### Urtean zehar egiten dira

Lourdes Odriozola Sagardoetxeako historialaria izaten da gidaria eta izen-ematea [info@sagardoetxea.eus](mailto:info@sagardoetxea.eus) webgunean eta 943 55 05 75 egin daitezke. Euskeraz eta gaztelaniaz ematen dira ibilaldian azalpenak.

Paisaia naturalaz gozaten

den bitartean. Ibilbideak 6,5 kilometrako distantzia eta oinez hiru orduko iraupena dauka.

Ibilbideak zortzi geldialdi tematiko dauka eta sagardoaren kulturaren bitartez, Astigarragako eta Santiagomendiko baserrien historia, bertako biztanleen bizimodua eta Gipuzkoako Santiago Bidearen punturik esanguratsuenaz ezagutuko dira. Ibilbideak duen gauzarik onenetakoa Santiagomendiko ermitatik dauden kostarako paisaia zoragarriez gozatzea da, baita sagasti eta sagardoa elaboratzen zuten dolare baserrietan zehar paseatzea.

Geldialdiak gidaren azalpenekin ibilbidearen puntu hauean egiten du: *Boterea* geldialdia (Plazaetxea); *Baserriak* geldialdia (Goikoetxea baserria); *Sagardoa eta itsasoa* geldialdia (Santiagomendiko ermitaren ingurua); *Paradisua* geldialdia (Santiagomendiko ermita); *Gainbehera* geldialdia (Ermaña); *Berpizkundea* geldialdia (Buena Vista); *Txotx-aren errotua* geldialdia (Artola landetxea); eta *Etorkizuna* geldialdia (Izaskun-go harrobia). **K**



## Etorkizuneko herria nolakoa nahi den, Emakumeen Mahaian

Aurreko asteazkenean egin zen lehenengo saioa, eta martxoan egitekoak ziren beste biak bertan behera geratu dira, prebentzio

### UDALA HIRIGINTZA

Astigarragako Udalak partaide-tza-prozesu bat antolatu du, berrikustera doan HAPOan (Herri Antolamendurako Plan Orokorra) emakumeen ikuspegia txertatzeko. Helburu honekin hainbat formakuntza eta partaidetza saio prestatu ditu, hiru lantaldean garatuko direnak: Udal-Mahaian, Mahai Teknikoan eta Emakumeen Mahaian.

Hiru saioak Emakumeen Egunaren hurrengo 3 asteazkenean antolatzeak ziren, baina oraingoz bakarria dago antolatuta eta beste biak bertan behera geratu dira. Aurreko asteazkenean *Hirigintza emakumeen ikuspegitik: teoriak praktikara* formakuntza saioa eskaini zen.

Bigarren saioa eta hirugarrenaren data berriak ez dago. Bigarren saioan *Sukaldetik plazara: nolako etxeak eta nolako kaleak nahi ditugu Astigarragan?* Seguritasuna, irisgarritasuna, zaintza, kontziliazioa eta abar eraikuntza eta hirigintza



Aurreko asteazkenean lehendabiziko bilera egin zen.

ordenantzetan txertatzeko parte-hartze saioa izango litzateke.

Azken saioan *Etorkizuneko Astigarragako hirigintza* izenburupean. Abiatu berri den HAPOan Genero-Ikuspegia txertatzeko gidalerroak osatzeko parte-hartze saioa.

### «Astigarragako biztanleak behar ditugu»

«Prozesu honetan ez ditugu hirigintzan 'adituak' behar, Astigarragan bizitzen 'arituak' baizik. Beraz, saioak herriko edozein auzotan bizi edota bertako kaletan orduak ematen dituen

emakume orori zuzenduta dade, adina, jatorria eta bizi-baldintzak edozein direla ere eta bai gizonezkoak ere ongi etorriak izango dira» Astigarragako Udaletik.

«Hirigintza arloan hartzen diren erabakiek guztion bizimoduari eragiten dieten arren, badakigu askotan erabaki horietan ez direla biztanle guztien beharrak maila berean jartzen. Hori ekiditeko, eta feminismoek erakutsitako bidetik, besteak beste honoko gaiak bistaratu eta txertatu nahi dira HAPOan» adierazi du Udalak. K

## Bihar arte epea, proposamenetarako

Aurrekontuetatik 210.000 euro zertara bideratu proposatzeko azken eguna izango da biharkoa horretarako jarritako moduetan.

### UDALA EKONOMIA

Astigarragako Udalak, *Astigarraga zure esku* proiektua jarri zuen martxoan orain bi aste. Bertan, aurrekontutik 210.000 euro zertan inbertitu erabaki dezakete herritarrek, eta horretarako, proposamenak egiteko garaia bihar amaitzen da. Udalak proposamen horiek kontuan hartuko ditu. Aurreko urtean, ekimen honi esker, eskolako jolastokia estali da, zahar-egoitzan berritze lanak egin dira, eta hainbat aldaketa gehiago lortu dira.

Horregatik, Udalak dio herritarren parte hartzea behar-beharrezkoa duela.

Hiru aukera egongo dira parte hartzeko, lehenik, eskuorrian idatzi behar dira proposamenak eta herrian kokatu diren postontzietan sartu. Hainbat

tokitan egongo dira postontzi hauek: udaletxean, kiroldegian, eskola-sarreran, anbulategian, kultur etxean, Gaztelekuan, haur eskolan eta AEKn. Kalendarerako egongo dira: Kontxa Etxeberria Plaza, Joseba Barandiaran plaza, Errekatxo Enparantza, Ergobia Plazatxo eta Norberto Almandoz plaza.

Bestela, [www.astigarraga.eus](http://www.astigarraga.eus) web orriko formularioa bete hartu daiteke parte, eta hirugarren aukera da, proposamenak [alkatetza@astigarraga.eus](mailto:alkatetza@astigarraga.eus) helbidera bidaltzea.

### Bideratutako partida bikoiztu egin da aurten

Normalean, urtean 100.000 euro bideratu izan ditu Udalak, Aurrekontu Partehartzaileen partidara. Baina joan den urtean ez zenez prozesua burutu, 2019 eta 2020koak bateratu egin ditu aurten, eta aurrekontu bikoizta izango da, herritarren eskura.

Proposamenak egiteko fasea bukatzen denean, udal teknikarien txanda izango da, horien bideragarritasuna aztertu ahal izateko. K

## Dirulaguntzak eskatzeko epeak, irekita

### UDALA DIRULAGUNTZAK

Berdintasuna, kirola, eta euskera eta kultura arloetako dirulaguntza deialdia zabaldu du Udalak. Eskara epea zabalik dago. Bestetik, dirulaguntza izendunak onartu ziren, hau da, herriko elkar-teei ematen zaizkienak. Berdintasun, kirol eta euskera eta kultura arloetako deialdiak martxoaren 5ean argitaratu ziren Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, eta apirilaren aurreneko astera arte egongo da eskaerak aurkezteko epea.

## Herriko mugikortasun ohiturak aztertzeke inkesta bete daiteke

### UDALA MUGIKORTASUNA

Astigarragako Udala Hiri Mugikortasun Jasangarrirako Plana lantzen ari da. Horren baitan, Astigarragako herriko eta industriagunetako mugikortasun ohiturak aztertu nahi ditu, besteak beste. Eta horretarako, RAZ enpresak internet bidezko inkesta bat prestatu du, laburra eta anonimoa. <https://encuestas-517e6.web.app/> estekan bete daiteke inkesta.

## Biharko antzerkia eta Irradaka dantza bertan behera geratu dira

### KULTURA KORONABIRUSA

Astigarragako Udalak ostegunean hartu zituen erabakiek, kultur agendan gertuen zeuden bi ekitaldiei eragiten diete lehenengo. Honela, biharko iragarrita zeuden *Mari eta gailera fabrika* antzerkia eta Irradaka dantza bertan behera geratu dira, kultur agendako beste ekitaldi guztiak bezalaxe. Antzerkia familiarra zen, eta Irradaka dantza Astigar dantza taldeak antolatu eskaini behar zuen. Borobilean, eskutik helduta, egiten den emakumeen dantza da. Udaberria eta haziak ereiteko garaia ospatzen da dantzatzu, eta bitartean abestu ere egiten da. Euskal Herriko herri askotan egiten da, eta adibidez, Hernanin San Joanetan egiten den Kantaita dantza Irradaka bat da.

## Koronabirusa ez zabaltzeko neurriak hartu ditu Astigarragako Udalak

Udal instalazio eta zerbitzu gehienak itxita egongo dira, eta bertan behera geratu dira ekitaldi guztiak.

### UDALA KORONABIRUSA

Nahiz eta oraindik bereziki eremu arriskutsua ez izan, beste herri eta herrialdeetan gaixotasunaren hedapenak izan duen bilakaera ikusita, Astigarragako Udalak hainbat erabaki eta neurri hartu ditu koronabirusa zabaltzea ekiditeko.

Udal instalazio eta zerbitzu hauek itxi egin dira, berriaz zabaltzeko erabakia hartu arte: kiroldegia, Gazte Informazio Puntua, Zarkumendegiko futbol zelaia, KZ Gunea, kultur etxea eta liburutegia, musika eskola,



Gomendioak eman ditu Udalak.

Gaztelekua, Galtzaur elkartea, Jolasberri - Arroitxulo eta AEK.

Bertan behera geratzen dira martxoan kultur eta kirol agendako ekitaldi guztiak ere.

Herritarrei eskatzen diete, oinarritzko prebentzio neurriak eta jarraibideak betetzeko: eskuak maiz garbitu; eztula egite-

rakoan aho-sudurrak estali; paporezko mukizapiak erabili, eta erabili ondoren bota; jende pilaketak ekidin; gaixotasunaren sintomak izanez gero (sukarra, arnas-arazoak...), etxean geratu eta Osakidetzako telefono zenbakira deitu (900 20 30 50); sintomak edukiz gero ez izan kontakturik adinekoekin edo gaixotasun kronikoak dituzten pertsonekin; eta ez ibili leku publiko eta jendetsuetan.

Udalak Jarraipen Batzorde bat osatuko du, osasun-krisi honi jarraipena egiteko.

«Herriko elkarte eta herritarrei dei egiten dizuegu zentzuz eta arduraz jokatzeko, eta eskatzen dizuegu osasun agintaritzak emandako jarraibide eta gomendioak betetzeko», diote.

Neurri hauek zenbat denbora iraungo duten ez dago jakiterik oraingoz. K



# «Urte osora zabaldu nahi ditugu ekintzak, jaietan eta udazkenean kontzentratu ordez»

Aurreko asteburuan eman zien hasiera 2020ko ekintzei, Olak Auzo Elkarreak, Amak taldearen kontzertuarekin. «Guk uste baino askoz ere jende gehiago etorri zen, bete egin zen frontoia; 400 inguru izango ginen», diote elkartetik.

## EREÑOTZU OLAK AUZO ELKARTEA

Martxoaren 8arekin, Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna ospatuz, eman zien hasiera Olak Auzo Elkarreak, 2020ko ekintzei. Modurik onenean ekin zieten, gainera: Amak taldearen kontzertua antolatu zuten igande arratsaldean, eta sekulako arrakasta izan zuen. «Guk uste baino askoz ere jende gehiago etorri zen, eta bete egin zen frontoia. Aspaldi ez zen hainbeste jende bildu», azaldu dute Amaia Otxotorenak eta Lurdes Oskozek, Olak Auzo Elkarreko kideek.

«Batzuek esan digute, kontzertzen aritu zirela, eta 400 lagun inguru izango ginela bertan», kontatu dute: «jendea goiz etorri zen. Ordu bete lehenago parkina beteta zegoen, eta jendea dagoneko aukietan eserita». Diote, kanpotik etorri zela jende asko, eta ez Urumea bailarako herrietatik bakarrik: Villabonatik, Lasartetik, Oizartundik... Jendetza erakarri zuen, Amak proiektuko laukoteak: Kristine Solano ereñotzuarrak, Alaitz Telletxeak, Maixa Lizarribarrek eta Amaia Orejak. Solanok, gainera, bere ikasleak ekarri zituen, panderoa jotzera; eta haiekin batera, baita gurasoak ere.

## Kultur ekintzak urte osora zabaltzea, aurtengo asmoa

Aurreneko ekintza izan da hori, eta laster etorriko dira gehiago. Izan ere, urte osoan zehar antolatu nahi dituzte ekintzak aurturtean: «Auzo Elkarrean, batez ere, hasten ginen biltzen San Antonio jaietan aurretik, eta Udazken Kulturala baino lehen, horiek antolatzen. Baina beti ibiltzen ginen presaka, denboraz larri, eta lotu nahi genituen ekintza guztiak ezin izaten genituen lotu». Hori aldatu nahi izan dute aurturtean, eta normalean bileretara joaten direnei, proposamena luzatu zieten: «urtean zehar maiztasun batekin biltzea proposatu genien, urtean zehar ekintzak antolatzen».

Horrela, hilean bi bilera egin dituzte: bigarren eta laugarren asteazkenean, arratsaldeko 18:15etan Auzo Etxean. «Auzotar guztientzat irekiak dira, baina

ez zaigu jende berria animatzen. Hori da tokia, Ereñotzun ikusi edo egin nahi dituzten ekintza horiek proposatzeko. Ea pixkanaka animatzen diren; ongietorriak izango dira». Bestela, bileretara ez joan arren, proposamenak eskertuko dituzte.

Amak taldearen kontzertuaren ondoren, beste ekintza bat ere antolatu nahi dute hilabete honetan bertan.

«Horrelako gauzak antolatzeko, eskatzen du hileroko elkarretzea. Auzo Elkarrean zuzendaritza bat dago, egon behar duelako; baina partehartzea irekia da, eta bileretan jende gehiegok hartzen du parte. Eta ekintzak antolatzen direnean, zer esanik ez. Auzo Elkarrea

## «Auzotar guztientzat irekiak dira bilerak, baina ez da jende berria etortzen. Ea pixkanaka animatzen diren. Hori da tokia, Ereñotzun ikusi edo egin nahi dituzten ekintza horiek proposatzeko»

beti izan da tresna, auzo honetan gauzak antolatzeko», azaldu dute Otxotorenak eta Oskozek.

Orain, helburua da, «dena San Antonio jaietan eta Udazken Kulturalaren kontzentratu beharrean, urte guztira zabaltzea ekintzak. San Antonio jaiak



Jendetza bildu zen aurreko igandean, 2020ko aurreneko ekintzarekin: Amak taldeak kontzertua eskaini zuen, frontoian.

berdin mantenduko dira, horretaz ez dago zalantzarik. Baina urtean zehar, udara aldean eta urte hasieran ez da gauza askorik egoten, eta garai horietan ere ekintzak izatea nahi dugu», nabarmendu dute.

## Ohiko ekintza eta egitasmoan martxan, aurturtean ere

Plangintza berriarekin, beraz, urte osoan zehar izango dira tailerrak, hitzaldiak, pelikula eta solasaldiak, mendi irteerak... Baina ohiko ekintza eta egitasmoak ere, mantendu egingo dituzte: martxan dira adinekoentzako Berriketan egitasmoa, haur zaintza edota gazteentzako ostiral arratsaldetako ekintzak, eta ez dira faltako Atsolorra apirilean, udalekuak uztailean, eta Dantzari Festa, besteak beste.

«Asmoa da lehendik zeudenak mantentzea, eta ikastaro eta hitzaldiak udazkenean kontzentratu beharrean, urte osora zabaltzea. Horrek bizia emango dio auzoari. Auzoan eskolak indarra hartu du, erakusten du auzo bizirik dagoela, eta ho-

gira adibide izango da, baita ere, urte osoan zehar ekintzak antolatzea. Haur gehiago daude, eta horrek eragiten du auzo biziago egotea».

Zentzu horretan, haurrei be-

## «Asmoa da lehendik zeuden ekintzak mantentzea, eta ikastaro eta hitzaldiak udazkenean kontzentratu beharrean, urte osora zabaltzea. Horrek bizia emango dio auzoari»

girakoak izaten dira ekintzetako asko: «hilean behin saiatzen gara, igande goizean elkartu eta mendi bueltaxka bat ematen, haurrekin egiteko modukoak». Asmoa daukate, baita ere, bisita gidatuarekin egiteko ibilaldiren bat, datozen hilabeteotan.

## «Frontoia ahalbidetu digu, beste dimentsio bateko kultur ekitaldiak antolatzea»

Amak taldearen kontzertua bezala, izan dira beste batzuk ere, oso arrakastatsuak, aurreko urteotan: «Xabi Solanoren kasuan, adibidez, hasieran bertigo pixka bat eman zigun, hain kontzertu potentia ekartzeak. Baina oso ondo ateratu zen. Eta urtero antolatzen dugu horrelakoren bat. Joan den urtean, *Erlauntza* antzezlanak erakarri zuen jende asko». Horrelakoak egiteko aukera, frontoia edukitzeak eman die: «lehen ez geneukan toki estali bat hainbeste jenderentzat, eta frontoia ahalbidetu du, beste dimentsio bateko kultur ekitaldiak antolatzea».

Guztia antolatzeko, Ereñotzuko Auzo Udalaren dirulaguntza jasotzen du Olak Auzo Elkarreak: «urtero egiten dugu hitzarmena, eta gero, urtean egindakoaren berri eman eta kontuak aurkezten ditugu urteroko, Auzo Batzarrean. Hori dena publikoa da», argitu dute Auzo Elkarreko bi kideek. **K**



'Berriketan' egitasmoan elkartzen dira adinekoak, kartetan edo solasean aritzeko.



Atsolorrak ez du hutsik egingo, aurtengo ekintzetan ere.



## Datozen bi asteetako ekitaldi eta ikastaroak, bertan behera

Bardoak Taldekako Bertso Txapelketaren finalurrekoa, gaur jokatzekoa zena, atzeratu egin dute, koronabirusagatik.

### GOIZUETA KORONABIRUSA

Goizuetako ekintzetan ere izanen du eraginik, koronabirusaren krisiak. Gomendatutako prebentzio neurriek jarraituz, bertan behera geratu dira, datozen bi asteetarako ekitaldi eta ikastaro guztiak. Horrela, ez dira egingo, asteburu honetan egitekoak ziren biak: Bardoak Taldekako Bertso Txapelketaren finalurrekoa, eta Artikutzara bisita gidatua.

Gaur zen jokatzekoa Bardoak Txapelketaren finalurrekoaren bueltakoa, Lesakako *Arranopola* eta Malerreka eta Baztango *Bertsonautak* taldeen artean, udaletxeko ganbaran. Baina saioa atzeratzea erabaki du Nafarroako Bertsozale Elkarteak, Goizuetako Udalarekin batera, koronabirusaren harira erakundeek emandako gomendioak direla eta. Azaldu dute, aurrerago jakiraziko dela, saioaren data.

Martxoan Artikutzan egite-



Lesakako 'Arranopola' eta Barañaingo 'Bertsopiztiak' taldeak, saio batean.

koak ziren bisita gidatuak, berri, bertan behera geratu dira. Biharko zegoen aurreikusita aurrenekoa, Donostiako Udalaren *Artikutza Natura* egitasmoaren barruan; eta datozen igandeetarako beste biak.

### Udal zerbitzuak martxan dira, baina saihesten saiatzeko eskaera egin du Udalak

Bi ekintza horiek ez ezik, gainerako guztiak ere suspenditu dira, datozen bi asteetarako. Hala jakinarazi zuen Goizuetako Udalak, ostegunean: «neurri honekin, koronabirus gaixotasunaren agerraldiari aurre egin nahi diogu». Horrela, bertan behera geratu dira, Bardoak saio-

arekin batera, martxoaren 27an egitekoa zen Katarrapikaka Tiki lehiaketa; eta 28rako aurreikusita zegoen Dama Beltzak kontzertua. Eta saio guztiak suspenditu dituzte, baita ere, astean zeharreko ikastaroek: pilates, jump fit, total training eta eskulanak.

Era berean, Udalak jakinarazi du, martxan jarraituko dutela udal zerbitzuek; baina ahal dela udaletxera joatea saihestu, eta tramiteak telefonoz (948 51 40 06) edo emailaz ([udala@goizueta.eus](mailto:udala@goizueta.eus)) egitea eskatu dute. Deia luzatu dute, zentzuz jokatu eta eta kutsatze berriak sortzeko bideak ez zabaltzeko abisuei kasu egiteko, aglomerazioak ekidinez. **K**

## Bertan behera utzi ditu jarduerak guztiak, Ereñotzuko Auzo Udalak

Berak antolatutako zein bere eraikinetan egindako ekintzak utzi ditu bertan behera.

### EREÑOTZU KORONABIRUSA

Koronabirusaren krisiaren aurrean, eta «administrazio ezberdinek hartu dituzten neurriak kontutan hartuta», Ereñotzuko Auzo Udalak erabaki du bertan behera uztea, «Auzo Udalak zuzenean antolatuta, edo berak antolatu ez arren, Auzo Udaleko eraikin ezberdinetan antolatzen diren jarduerak ezberdinak».

Hala jakinarazi zuen ostegun arratsaldean, eta nabarmendu zuen, «kontrako erabakia hartu bitartean» iraungo duela neurri horrek.

Ostegunean bertan sartu zen indarrean erabakia, eta aurre-



Bertan behera geratu zen, ostegunean egitekoa zen Auzo Batzarra ere.

neko eragina, egun horretarako deituta zegoen Auzo Batzarra jaso zuen. Bertan behera geratu zen ezohiko batzar hori, auzoko futbol zelaian zer egin landu, aztertu eta erabakitzekoa zena. Eta ostegunean bertan, bertan behera geratu zen ludoteka ere.

Datozen egunetan, berri, gainerako ekintza guztiak ere

suspendituko dira, Auzo Udalak kontrakoa jakinarazi bitartean. Horrela, ez dira eskainiko gazte txokoa, yoga, bestelako ikastaroak, haur zaintza zerbitzua, Berriketan adinekoentzako egitasmoa, eta gainerako jarduerak guztiak.

Hartutako neurria ulertzea eskatu diete, auzotarrei. **K**



Datozen egunetan egongo da martxan berriro, harategia.

## Datorren astetik zabalik berriro, harategia

Juan Ramon Lizarraga leitzarrak hartuko dio erreleboa, Ximon Apezetxeari, Udalak lokala esleituta.

### GOIZUETA HARATEGIA

Datorren astetik izango da martxan berriro harategia, Juan Ramon Lizarraga leitzarraren eskutik. Bera izanen da Goizuetako harakin berria, Udala lokalaren esleipena eginda.

Udalak azaldu du, «interes handia» sortu zuela harategiaren negozioak: «eta denbora tarre laburreratik batzuek atzera egin badute ere, azkenik bi interesatu aurkeztu ziren, harategia alokairuan hartzeko. Zegokion prozesua eta baldintzak beteta, Juan Ramon Lizarraga izanen da negozioarekin jarraituko duena», azaldu du.

Prozesua bukatuta eta aste honetan lokalean lan batzuk egin ondoren, datozen egunetan jarriko omen du martxan. **K**

## Partehartze prozesua martxan, 2 poligonoko partzela baten inguruan

Aritz Loiarre Ansak sustatu du, 24garren partzelari buruz; eta martxoaren 23an bilera egingen dute, udaletxean.

### GOIZUETA HIRIGINTZA

Goizuetako 2 poligonoko 24garren partzelaren inguruan, proposamen bat mahai gaineratu nahi dute, eta herritarren partehartzea sustatu. Aritz Loiarre Ansak sustatu du, partzela horretarako Hiri jarduketarako Plan Bereziaren Herritarren Parte Hartzeko Plana; eta herritarrek parte hartzeko, bilera bat

deitu dute, martxoaren 23an, eguerdiko 13:30etan udaletxeko batzar aretoan. Bertan emango du proposamenaren berri, idatzi duen taldeak; eta kontsultak egin ahal izanen dituzte bertaratuek, eta erantzun tekniko emanen diete, modu errezean ulertu ahal izateko.

Gainera, bileran egiten diren proposamen eta iradokizun guztiak bilduko dituzte, eta bileraren ondoren, hilabeteko epea zabalduko da, martxoaren 24tik apirilaren 23ra, proposamen eta iradokizunak aurkezteko, [equal.architectos@hotmail.com](mailto:equal.architectos@hotmail.com) helbide elektronikoan. Dokumentazioa eskuragarri dago Udalaren web orrian, eta udaletxean. **K**

## Nortasun Agiria berritzeko aukera, datorren asteazkenean Leitzan


### ARANO-GOIZUETA TRAMITEAK

Hilean behin izaten da Nortasun Agiri Nazionala berritzeko aukera, Leitzan. Eta martxoko hitzordua, datorren asteazkenean izanen da, hilaren 18an. Horretarako, txanda hartu behar da alde zurretik, telefonoz deituta: 948 01 20 12.



# DOMINOAN

Marratz itzazu lau zurietan falta diren irudiak, dominoak zentzua izan dezan.




# ARRAIN-SALTZAILEAK

Bi arrandegi hauetako saltzaile bakoitzak badu besteak ez daukan zerbaite erakusmahaietan. Zeintzuk dira bi elementu horiek?



# MARTXOKO SUDOKUA

Osa ezazu sudokua, MARTXO hitza osatzen duten hizkiak (M, A, R, T, X eta O) ipiniz. Gogoratu, letra bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.



EGILEA: Garbine Ubeda (Aurri)  
 TOKIKOMeko beste hedabideekin elkarlanean argitaraturako atala.

SOLUZIOAK: Sartu [www.plazanbazan.eus](http://www.plazanbazan.eus) web atarian eta denbora-pasa hauen soluzioekin batera beste hainbat jolas aurkituko dituzu.

QRk irakurtzeko aplikazio batekin irakurri





# «Ni ere oso harrituta nago; espero baino askoz ere hobeak ari dira izaten emaitzak»

Sekulako sasoian hasi du mendi lasterketen denboraldia, Hodei Lujanbio goizuetarrak: lau lasterketa egin, eta denetan igo da podiumera. Lesakan, gainera, aurreneko garaipena lortu zuen. Urtetik urtera egin du hobera, baina berak ere ez zuen espero, aurten «salto» hori ematea.

## GOIZUETA MENDI LASTERKETAK

Orain bi aste jarri zion erremate borobila, Hodei Lujanbio goizuetarrak, mendi lasterketen denboraldi hasiera bikainari. Lesakako Mendi Lasterketan jaso zituen besoak, aurreneko aldiz txapeldun. Baina ordurako ez zen sorpresarik izan: lau mendi lasterketa egin, eta denetan igo da podiumera aurten.

«Ez nuen espero horrelako sasoian hastea denboraldia. Egia da aurreko urtean ondo ibili nintzela, baina aurten, lasterketak egiten hasi nintzenetik, oso gustora ari naiz aurkitzen, eta espero baino askoz ere hobeak ari dira izaten», dio korrikalari goizuetarrak.

Otsailean ekin zion, Berastegiko Negu Trailen, bigarren postuan sailkatuta; eta Lezo-Jaizkibelen konfirmatu zuen, ez zela egun bakarrekoa izan bere maila: hirugarren egin zuen. «Ikusita aurretik izan ditudan korrikalari pare batek daukaten maila, eta orokorrean inguruan maila oneko jendea izan dudala, ni ere oso harrituta nago, lortzen ari naizen emaitzekin», onartu du.

Aurreneko bietan sekulako mailan arituagatik ere, azkenean bietan aritu da gustoren, Lujanbio: «berez, Lesakako garaipena esan beharko nuke. Baina egia esan, UZ Traileko bigarren postuarekin gustorago geratu nintzen. Lasterketa luzeagoa zen, 23 kilometro, eta lasterketa erdian zazpigarren postuan egoteak, bigarren postura aurreratu nuen gero. Aurrenekoa nuen aurten, distantzia luzeagoetan, eta indarrarekin bukatu nuen, oso sentsazio onekin».

### «Orain dela bi-hiru urte, ez nuen imajinatzen maila honetara iristea»

Goizuetarrak azaldu du, «urte-tik urtera» nabaritu duela «salto bat», azkeneko bi-hiru urteotan. «Ustez, berdintsu jarraitzen dut entrenatzen eta dena egiten, baina hobera egin dut. Egia da entrenatzen dudala, noski, ez naiz geldirik egoten; baina aur-

ten ez naiz ezer berezirik egiten ari, eta aldiz, aurten eman dut saltorik haundiena. Beste maila batean ikusten naiz, eta beste maila batekoak dira emaitzak». Zentzu horretan onartu du, duela bi urte ez zuela «imajinatzen» maila horretara iristea: «ordu-dagoeneko oso gustora ibiltzen nintzen, eta emaitza onak ziren niretzat. Eta ezer berezirik egin gabe emaitza hauek lortzea... Ni ere harrituta nago».

Bere mailak, dagoeneko ez ditu sorpresaz harrapatuko gainerako korrikalariak: «orain arte ez ninduten ezagutzen, aurrean dabilzanez; eta orain behar-bada ezagutu eta kontutan hartzen naute», dio berak.

Aurten eman duen «salto» horrek sekreturik badu, behintzat, ez dio Kronikari kontatu: «ez ditut aldatu entrenamenduak, ezta elikadura ere. Aspal-ditik jaten dut nahiko garbi, dieta berezirik gabe baina denetik. Eta asteburuetan, beti tokatzen da afariren bat etxetik kanpo, lagunekin eta. Hori ere ez dut uste aldatuko denik; gustukoa dut, eta horrekin jarraitu nahi dut», onartu du. Aldatu duen bakarra da, aurten masajistarengana joaten hasi dela: «horrek behar-bada laguntzen dit, karre-ratik karrerara eta entrenamen-

### «Herrikoek esan didate, Goizutrail irabazi edo podiuma egingo ote dudan... Nik ere badaukat ilusio hori, berezia izango litzateke, baina beti da zaila»

ditik entrenamendura hobeto erreku-peratzen».

### «Goizutrail izan nuen aurreneko mendi lasterketa, antolatzen hasi zenean»

Goizueta mendi lasterketetan murgildu zenean, ekin zion Hodei Lujanbiok berak ere, 2014an.



Hodei Lujanbio, Aiako Harriko tontorrek eta Arditurriko bidegorria atzean dituela.

«Urte hartan antolatu zen Goizutrail aurreneko, eta esango nuke, ordura arte ez nekiela mendi lasterketak bazeudenik ere. Aurretik beti egin izan dut kirola, eta mendia ere gustuko nuen; mendi bueltak egiten nituen oinez, tarteka. Beraz, herrian lasterketa bat antolatuta, lagunartean bi-hiru hilabetez entrenatu, eta animatu egin ginen». Halaxe egin zuen hurrengo urtean ere, eta bigarren batekin ere animatu zen, Oiartzungo Intxixu Trailen, bikotearen herrian: «gustatu zitzaidan mendian korrika egitearena, eta pixkanaka gehiago ibiltzen hasi eta engantxatu egin nintzen».

Ordura arte, areto futbolearen aritzen zen: «zortzi bat urte egin genituen Umore Ona taldearekin, Gipuzkoako Ligan. Ez ginen oso maila oneko jokalariek eta taldea, baina giro ona genuen, eta ondo pasatzen genuen».

Zazpigarren edizioa izango du Goizutrailek aurten, eta denetan hartu du parte Lujanbiok: «urteko helburuetako bat izaten da. Herriko lasterketa da, berezia. Joan den urtean, Leitzako Mendi Erronka hartu nuen helburu, eta astebeteko aldearekin ziren. Horregatik, printzipioz lasai hartu behar nuen Goizutrail, baina azkenean, herrikoa izanda, dena eman nuen. Gero, ahal bezala erreku-peratu nintzen Leitzarako, eta azkenean ondo ateratu ziren biak». Sorpresa har-

tu zuen Mendi Erronkan: «67 kilometro dira, eta erokeria bezala ikusten nuen, baina probatzea erabaki nuen, eta gustatu zitzaidan. Ez nekien nola aguantatuko nuen, baina pixka bat neurtzen hasi, eta uste baino askoz ere hobeto bukatu nuen».

### «Askotan joan izan naiz Oiartzundik Goizuetara, menditik korrika. Larunbat goizean joan, arratsaldea herrian pasa, eta igande goizean bueltatu»

### Goizutrailen irabazi edo podiuma lortzea, «ilusioa»

Bi lasterketa horiek izango ditu helburu nagusi, aurten ere: Goizutrail eta Euskal Herriko Mendi Erronka. «Emaitzak ikusita, herrikoak hasi zaizki esaten, kalean topatuta, aurten Goizutrail irabazi edo podiuma egingo ote dudan. Beti da zaila, baina saiatu egingo naiz behintzat. Nik ere badaukat ilusio hori, berezia izango litzateke».

Ordura arte, baina, ez da geldirik egongo. «Bi astetik behin egiten ditut lasterketak, gutxi gorabehera». Eta datozen hila-

beteotan, badauzka batzuk, bertan behera geratzen ez badira behintzat: Berako Mendi Maratoi Erdia (21 kilometro); Nafarroa Xtrem, Zubirin (35 kilometro)... «Baina maiatzetik aurrera izango dira helburu nagusiak», aurreratu du.

Goizutrailen, beste hainbat goizuetar ere ariko dira korrika: «gehienek Goizutrail egiten dute eta kitto, baina beste pare batek Leitzako Mendi Erronka ere egiten dute. Goizuetan leku faltarik ez daukagu behintzat, mendi bueltak egiteko!».

### Oiartzundik Goizuetara asteburupasa, korrika

Oiartzunen bizi da Hodei Lujanbio orain, eta Aiako Harrien inguruan aritzen da gehien entrenatzen. Hain justu, Aiako Harria Parke Naturalak lotzen ditu Oiartzun eta Goizueta, eta bidea ondo daki berak: «askotan egin dut bi herrien arteko bidea. Bide motzenetik 20 kilometro inguru dira, baina bukaeran 5-6 kilometro dira asfaltoan, eta nahiko luze egiten da. Artikutzatik barrena badaude bide politagoak, luzexegoak. Aukera desberdinak daude. Egin izan dut, larunbat goizean Oiartzundik Goizuetara menditik korrika joan, arratsaldea herrian pasa, eta igande goizean buelta berdin. Kotxean baino dezente laburragoa da, eta ez da askoz ere denbora gehiago behar!». K





Hernaniko kiroldegia atek atzo itxi zituen.



Sagardoaren Txapelketa gaur arte mar txan egongo da.

## Koronabirusak kirol ekitaldiak kaltetu ditu

Euskal Herri guztian bezala, kirol ekintzak bertan behera geratu dira bailara osoan zehar, kirolariak eta kirol taldeak kaltetuz.

### URUMEA KIROLA

Kirolean koronabirusaren krisiak kalte handiak sortu dizkie kirolarietara eta kirolari berari ere. Bertan behera geratu dira eskola kirola eta federatutako kirolari lotutako ekitaldi guztiak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailak «eskolaren esparruan hartutako prebentzio neurriekin koherenteak» izateko dei egin duela-eta.

Horrela, Hernani, Goizueta, Arano, Ereñotzu eta Astigarragako kirolariak ez dute izango partidurik palan, futboleko, eskubaloian, saskibaloian, boleiboleko, hockeyan, waterpoloan, pelotan, errugbian... Era berean, JOCC txirindulari taldeak antolatuta asteburuan Hernanin jokatzekoa zen Hernani Saria proba ere bertan behera geratu da, eta beraz, ez da errepidean mozketarik izango.

Kirol instalakuntzak ere itxita daude bailara guztian; bai Hernaniko kiroldegia, baita As-

tigarragako ere.

**Taldeek aktibitatea geratu dute** CD Hernaniko atletismo sailak kirol jarduera guztiak bertan behera utzi zituen atzotik behin behinean: eskola kiroleko entrenamendu zein txapelketa guztiak, atletismo eskolako entrenamendu zein txapelketa guztiak, emakume korrikalarien entrenamendu guztiak, federatutako kategorien entrenamendu zein txapelketa guztiak. Benjamin, alebin, infantil eta kadeteen kasuan bete beharreko erabakiak dira. Jubenil zein ondorengo kategorietan gomendioak dira, baina CD Hernanik jarraitu egingo ditu. Futbol eta pelota sailek ere jarraituko dituzte. Palan, jarduera guztiak suspenditu dira.

Mundarrok sail guztietako partidu zein entrenamenduak bertan behera utzi ditu. «Gure elkartetik, gizarteak aurrean duen erronka honi aurre egiteko, arduraz jokatzeko deia za-

baldu nahi du».

Hernaniko Eskubaloitza taldeak ere oharra atera zuen. Entrenamendu eta partidu guztiak bertan behera utzi dituzte abisu berria izan eta jaso arte.

Euskal Herriko igeriketa txapelketa bertan behera geratu da eta bertan egon behar zuten bailarako igerilariak ez dira ariko.

### Iñigo Llopis Blumetik etxera, zentroa itxi dutelako

Eliteko kirolean edo estatu mailan aritu behar zuten kirolariak ere kalte handiak izan dituzte krisi honen eraginez. Igeriketan, adibidez, Iñigo Llopis Tokioko Joku Olinpikoak prestatzen ari zen Errendimendu Altuko Madrilgo Blume zentroan. Blumeren atek itxi egin dituzte eta bere entrenamenduak bertan behera utzi beharrean aurkitu da.

Aste honetan Oviedon Espainiako infantil mailako igeriketa txapelketan parte hartu behar zuten Enaitz Goñik eta asteardean ez jokatzeko erabaki zuen espainiar federakuntzak.

Izotz hockeyan, Txuri Urdin taldean badira jokalaririk herna-niarrak, eta asteburu honetan Ligaren bila finaleko lehenengo

## Galarretak atek irekiko ditu gaur

Oriamendi 2010 enpresak, aktibitatea 15 egunez etengo du gaurtik aurrera, aldaketarik ez bada behintzat.

### HERNANI ERREMONTEA

Ostegunean kirol aktibitate ia denak bertan behera geratu ziren eta erremontea izan zen salbuespen bakarrenetakoa. Gainera salbuespen horrek gaur jarraituko du eta printzipioz, azken orduko aldaketarik ez badago, partiduak iragarri dira gaurko. Hori bai, Oriamendi2010 enpresak gaurtik aurrera aktibitate guztia etengo du datozen 15 egunetan, haue ere beti egoeraren eboluzioaren baitan. Horrek Sagardo Txapelketa geratzea suposatuko du.

### Zubiriren debuta Sagardoaren Txapelketan

Gaurko lau partidu daude iragarri eta bigarrena Sagardoaren Txapelketakoa izango da. Bertan Ezkurra II eta Zubiri, Goikoetxea V eta Aizpuru IIIaren aurka neurtuko dira.

Beraz, Zubiri goizuetarraren debuta izango da gaurko txapelketan. Berak eta Ezkurrak Larre Gain ordezkatzeko dute eta Goikoetxea eta Aizpuru Gurutzetaren izenean jokatu dute. Esan, Aizpuru ordezkatu

duela Endika, lesionatuta baitago. Gorriak faborito dira A taldeko bigarren partidu honetan. Endika bezalako atzelari indartsu bat ordezkatzeko ez da erraza eta Aizpuru bere mailarik hobereana eman beharko du Larre Gain irabazi ahal izateko.

Gogoratu A talde honetan lehendabiziko partiduan Gaztañagak (Seguro-la-Ion), Bereziartua (Urriza-Arruarte) gaitu zuela; eta lau eta puntu bat dauzkate, hurrenez hurren.

**Setienek garaipena, ostegunean** Sagardoaren Txapelketako hamargarren edizioaren hirugarren partiduan Setienek lehen lau puntuak batu zituen ostegunean. Ansa II.ak eta Larrañagak 40-29 gaitu zituzten Juaneña eta Garces, azken hauek Altzuetaren ordezkari.

Ansa II.ak eta Larrañagak bikote sendoagoa osatu zuten, Garces baino eraginkorrago aritu zen Larrañagaren lanari esker. Agirrezabala ordezkatu zuen Garcesek.

Partidu gogorra eta borrokatu izan zen eta bi aurrelariak oso ondo jokatu zuten. Abiadura eman zioten pelotari bere kolpe boteretsuarekin. Aldea atzelarietan egon zen.

Emaitza honekin Setienek eta Petritegik (Matxin eta Azpiroz) launa puntu dituzte. Bat Oialume Zarrek (Aldabe-Barre-netxea) eta zero Altzuetak. **K**

### EGURALDIA

#### GAUR

Zerua laino gutxirekin edo oskarbi egongo da egun osoan, goi-laino batzuk agertuko dira soilik eta goizean goiz behe-lainoen gune batzuk.  
**Min.4° / Max.14°**

#### BIHAR

Giro eguzkitsua goizean eta aldaketa zakarra arratsaldean. Temperatura maximoak 17-20 °C arteko balioetara iritsiko dira. **Min.5° / Max.17°**

(euskalmet)

### TELEFONO ZENBAKIAK

**TAXIAK** 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037 - 948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOA** 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga) **DYA** 943 464622 **AUTOBUSAK** **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korreoa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK:** 943 331103 **ANBULATORIOA** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta)

### FARMAZIAK


**Egunez: Castilla** Urbietan, 7 (Hernani) **943 552941** **Gauetz: Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738**  
**Goizueta:** Nagusia 64 948 514353

### IRAGARKI MERKEAK

**Lokal-garajea salgai, Arantzazu Plazan (udaletxe atzean).** Bi kobzerentzako dauka tokia, eta zuzenean kalera joateko irteera. **Deitu: 699 492 235**  
**Haur zaintzalea.** Ikastetxeen 15 eguneko egoera ikusita, unibertsitateko ikaslea den 21 urteko neska hernaniarra ume zaintzale gisa lan egiteko prest. **Deitu: 680 363 705**  
**Iñigo Royo Masajista.** Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura.... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**



LEONILIA



DOR

# Euskaraldia 2020 talde eta elkarte guztietara hedatuko da euskera ahalik eta gehien zabaltzeko

Hizkuntza ohiturak aldatzeko ariketa azaroaren 20tik abenduaren 4ra arte egingo da eta norbanakoez gain talde edo entitate desberdinetan kanpora eta barrura begira ariguneak identifikatuko dira euskeraz aritzeko.

## ASTIGARRAGA-HERNANI EUSKARALDIA

Hizkuntza ohiturak aldatu eta euskeraren erabilera haunditzea helburu duen Euskaraldia ariketa sozialaren bigarren edizioa azaroaren 20tik abenduaren 4ra egingo da. Aurten gainera entitate, talde, elkarte, jendea biltzen den leku guztiek izango dute protagonismoa. Hernanin eta Astigarragan antolatuta dira eragileak Euskaraldia aurrera eramanez ahal izateko. Hernanin Dobera Euskara Elkartek bere gain hartu du antolaketa eta kudeaketa eta Astigarragan lan talde bat sortu da Anartz Bilbao dinamizatzailea delarik. Hainbat herriko Udalen babes eta onespina ere aipagarria da Euskaraldian.

Dobera Euskara Elkarteak Nagore Zubitur, Leire Otxotorena eta Lander Ibarburu tinko ari dira lanean prestaketa lanetan. «Orain koronabirusaren krisia dela eta aldaketa batzuk egin behar izan ditugu, baina mar txan gaude. Hamarreko talde eragile bat ere sortu da, batzordea... Nahi duena gonbidatua

dago normaltasuna bueltatzean bertan partehartzera. Hitzaldiak, ekitaldiak.. antolatuko dira urtean zehar egitasmoaren inguruan nahiz eta orain dagoen egoerarekin ezingo diren antolatu. San Joanetan ere egingo litzateke ekimen bat».

## Taldeen barruan beraiek identifikatu behar dituzte ariguneak

Taldeek funtzio aktiboagoa izango dute bigarren edizioan. Urrats bat aurrera egin eta taldeen funtzionamenduan euskeraren erabilera eta praktikak babesteko konpromiso zehatzak hartzeko eskaria egingo zaie parte hartzen dutenei. Horregatik talde guztiei animatzen zaie partehartzera eta horretarako «gutunak bidaliko ditugu izena eman dezaten. Animatu egingo ditugu parte hartzera».

«Horretarako, hala ere, beharrezkoa da talde barruan dauden ariguneak, edo euskeraz lasai aritzeko guneak, identifikatzea lehenengo; eta kideen arteko adostasuna lortzea ere ezinbestekoa da» azpimarra-



Nagore Zubitur, Leire Otxotorena eta Lander Ibarburu, Dobera Euskara Elkarteko kideak.

tzen dute Doberatik. Taldeek izena eman dezakete jadanik uztailearen 31ra arte <https://euskaraldia.eus/ariguneak/entitateen-izen-ematea/> webgunean.

Ariguneak izan daitezke kanpo funtzionamendura edo barne funtzionamendura begira. «Talde barruan ariguneak detektatu beharko dituzte taldeek beraiek. Gero euskeraren alde urratsa emango dute eta arigune horietan, partaideek, ariketa egin beharko dute euskeraz aritzeko. Nahi izanez gero aukera ere izango dute urritik

aurrera ariketa egiteko. Gero ere jarraipena izateko aukera egongo delarik». Norbanakoez gain, belarriprest eta ahobizi izateko aukera ere, aurreko edizioan bezala izango dute. Nahiz eta taldeena bultzatu, norbanakoen ariketak ere garrantzi handia izaten jarraituko du». Irailean hasiko litzateke.

## «Taldea norbanakoari babesa eskaintzen dio»

Helburua hizkuntza ohiturak aldatzea da. «Hori da ariketa». Taldeak zergatik bultzatu nahi

diren azaltzen du Leire Otxotorena. «Taldea norbanakoari babesa eskaintzen dio. Denak elkarrekin aritzeko erabakia hartu izanak erraztu dezake denon artean hizkuntza ohitura horiek aldatzea. Lan munduan sartzea ere helburua da, zailtasunak izan daitezke euskera txertatzeko». Astigarragan Anartz Bilbaok Kike Amonarriren hitzaldia du antolatuta apirilaren 23rako eta «aurkezpen gisa eta jendea animatzeko hamabostekoaren aurkezpen bat ere egingo dugu». K

## KRONIKAK PUBLIZISTA BEHAR DU ORDEZKAPEN BATERAKO

Bidali zure CV-a, martxoaren 23ra arte:

kronika@kronika.eus

Dobera Euskara Elkartea  
Larramendi 11 behea  
20.120 HERNANI

Kronika

DOBERA  
EUSKARA  
ELKARTEA

### ESKATZEN DA:

/ Euskeraz ondo menperatzea, hitzez zein idatziz.  
/ Lantaldean aritzeko gaitasuna.  
/ Iniziatiba eta enpatia.  
/ Publizitate edo komunikazio ikasketak izatea.

### ESKAINIKO ZAIO:

/ Kontratu: sei hilabetetarako.  
/ Eginkizunari dagozkion soldata eta lan baldintzak.

### BALORATUKO DA:

/ Urumea bailara ezagutzea.  
/ Doberako bazkide izatea.  
/ Tokiko hedabideak ezagutzea.  
/ Publizista lanetan esperientzia.  
/ Maketatze eta diseinu programen ezagutza.  
/ Sare sozialak menperatzea.

Baldintzak betetzen dituztenen artean probak egin ondoren bat aukeratu da.

## ISABEL

Janari denda

COVIRAN

Tomas Alba 11,  
Astigarraga  
943 55 23 67

## AROZA

TABERNA

Animo guztiei!

OTORDUAK ETXERAINO  
ERAMATEN DITUGU

Deitu  
695 571 944

Txantxilla kalea, 4 behea  
HERNANI

## IRUBIDE JATETXEA

Zure jatetxea, Epelen



Epele auzoa, 7  
943 552 480 - 667 208 702